

# AIARALDEA *hemen*



TAKOMANO E.T.:  
**Koska bat gora egin dute ikerketa espeleologikoen garapenean, espeleo-urpekaritzari esker** 18-23 or.

AITOR INTXAURRAGA:  
**“Baserrietan ez zegoen artea ikasteko kultura. Nekez lortu nuen hori onartzea”** 26-27 or.



## 40 urte pika eta ebats

### LAUDIO 7

**Ikasturtean garatutako enpresa-proiektuak aurkeztu dituzte**

Laudioaldeko ikasleek Ikasenpresa azokaren III. edizioan hartu dute parte

### AIARALDEA 12-15

**Amalurra kantuz eta makil kolpez esnatu dute Santa Ageda bezperan**

Urduñan eta Amurrión 2006. urtean jaiotako kintoez hartu mantendu dute ohitura bizirik

### KULTURA 24

**Burbuilak taldeak hamabi abestiz osaturiko bere lehen diskoa kaleratu du**

Martxoaren lehen aurkeztuko dute lana, Amurrioko Antzokian

### KIROLA 28

**Hodei Muñoz pozik Munduko Ziklo-kros Txapelketako emaitzekin**

Luiaondoarra 29. izan zen Txekiar Errepublikan jokaturako ziklo-kros proban

***Irainik ez,  
kitto!***



***Eskola Kirolean errespetuaren aldeko kanpaina***

# Berrogei urte Aiarako plazetan jauzika



Euskal dantzak eta folklorea ardatz, Aiara Dantza Taldeak berrogei urte bete ditu aurten, eta ekintzaz beteriko urtea prestatu dute. Lau hamarkada hauetan taldeko kide izandako dantzarien bila dabilta urteurren borobila ospatzeko.



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

1984. urtean, Zuatzako jaieran, lehendabiziko aldiz atera ziren plazara Aiara Dantza Taldeko kideak. Geroztik berrogei urteko ibilbide oparoa egin du dantza taldeak, eta ehunka izan dira bertatik igarotako dantzariak.

Tradizioei eusteko ahaleginean, belaunaldiz belaunaldi jasotako ezaguzta mimoz gorde dute, eta, oraindik ere, lekukoa urte luzez aurrera eramateko indarra mantentzen du taldeak.

## Hastapenak

Amurrion aurretik egondako dantza taldeek utzitako hutsunea betetzeko asmoz sortu zuen guraso talde batek Aiara Dantza Taldea 1984an; euskal dantzen eta eus-

kararen transmisioa ardatz harturik.

Santutxuko dantza taldetik etorritako Edorta Ialdaberek eta Isabel Sanchezek hartu zuten dantza eskolen gidaritza. Kultur Etxean ekin zioten entseatzeari, eta hasieran 30 lagun inguru biltzen ziren arren, ahoz aho azkar zabaldu zen taldearen berri Amurrion eta egunegun handituz joan zen partaide kopurua.

Hamar urte igaro ziren horrela harik eta Ialdaberek eta Sanchezek lekukoa dantza taldean hazitako gazte eta gurasoei pasa zieten arte.

1994an, beraz, taldearen lehengo inflexio puntuagertatuz; irakasleen faltan taldeko dantzari habilenek hartu zuten gidaritza eta teknika hobetuz eta finduz joan ziren. Taldeak berak bere jar-

duna ere handitu egin zuen: “Dantza Federaziora batu eta beste dantza talde batzuekin trukea egiten hasiginen”, gogoratu du Juan Mari Iglesiasek.

## Mimoa jantzigintzan

Aiara Dantza Taldearen ikuskitzen bat ikustera joan den edonork igarriko zuen taularatzeari jartzen diote mimoa. Ezer ez da ausaz gertatzen, eta euskal dantzen folklore zabalaren barruan jantziek garrantzi berezia dute.

Hain zuzen ere, 1990eko hamarkada hasierarekin batera identifikatu du Mari Carmen Rabadek jantzietan jauzia: “Jantziak aldatu egin genituen 1990eko hamarkadan. Neskak, esaterako, motadun gona beltzen ordezkoloredunak erabiltzen hasi ziren”. Jantzigintza prozesu horretan taldeko gu-

**Tradizioei eusteko ahaleginean, belaunaldiz belaunaldi jasotako ezaguzta mimoz gorde dute, eta oraindik ere lekukoa urte luzez aurrera eramateko indarra mantentzen du taldeak**

rasoek zeresan handia izan zuten. Izan ere, burubelarri aritu ziren jantzi berri guztiak diseinatzen.

Baina sakonagora jota ere, Aiara Dantza Taldeak kariño handia jarri izan dio tokian tokiko dantzen folklorea errespetatzeari. “Euskal Herriko dantza tradizional bakoitzak bere jantzi propioa dauka. Ez dira berdinak Zuberoan erabiltzen dituztenak, edota Nafarroako beste tokiren batean erabiltzen dituztenak. Dantzak desberdinak diren bezala jantziak ere bai”, azaldu du Marina Iturratek.

Tokian tokiko dantzen detaile guztiak biltzeak ikerketa lan sakona suposatu du Aiara Dantza Taldeko kideentzat, eta askotan, dokumentazio lan horrek harremanetan jarri izan ditu beste dantza talde batzuekin. “Askotan oso detailera jotzen dugula diote, bai-

## erreportajea

na guk ahalik eta zehatzenak nahi dugu izan”, adierazi du Itxaso Bellidok.

Horrek guztiak euskal jantzi tradizionalen stockizugarria pilatze-  
ra eramane du taldea. “Jantzi historikoak ditugu gordeta”.

**Zuzeneko musika**

Jantziek bakarrik ez, musikak ere zentralitate berezia du Aiara Dantza Taldearen emanaldietan. “Beti dantzatu izan dugu zuzeneko musikarekin. Egia da guk zorte hori izan dugula. Beste talde asko kasete bat jarrita ateratzen dira plazara, ahal dutena egitera”, nabarmendu du Bellidok.

Izan txistua eta danbolina herri txikietako emanaldietan edo Ruben Isasik eta konpainiak osatutako euskal musika tresna tradizionalen kontzertua Amurrioko Jailetako dantzaldian, Aiara Dantza Taldeko kideek ez dute ukatzen “luxua” dela taldeak zuzeneko musikarekin dantzatzeko duen aukera.

Emanaldietan bakarrik ez, entseguetan ere zuzeneko musika

## Tokian tokiko dantzen detaile guztiak biltzeak ikerketa lan sakona suposatu du Aiara Dantza Taldeko kideentzat, eta, askotan, dokumentazio lan horrek harremanetan jarri izan ditu beste dantza talde batzuekin

darabilte. “Zortea dugu gure txistularia, Juan Mari, dantzari izandakoa ere badelako, eta oso ondo ezagutzen gaitu”, goraiatu du Rabadek. “Konexio berezia sortzen da txistulariaren eta dantzarien artean, asko laguntzen gaitu okertzen garenean ere aurrera egiten”.

**Herrian dantzan**

Urtean zehar dozenaka ekintza antolatzen ditu taldeak, betiere euskal dantzakerdigunean jartzeko helburuarekin. Udaberriari ospatzen den Euskal Jaia, Amurrioko Jailetako emanaldia edota San Rokeko auresku, fandango eta arinarin txapelketa dira agendan inoiz falta ez diren ekimenak, besteak beste.

Aiarako herrietan ere dantzan izaten dira maiz, bereziki udako jaien maratoiaren barruan. “Aiarako herri guztiak Aiara Dantza Taldeari esker ezagutu nituen”, azaldu du Mari Carmen Rabadek. Herri txikiekiko lotura hori 25. urteurrenean estutu zuten gehiago, Aiarako 24 herrietan dantza egin zuten urte hartan.

## “Urte hauetan guzteitan ez dugu galdu herriz herri ibiltzeko eta emanaldi desberdinak prestatzeko ohitura”

“Urte hauetan guztietan ez dugu galdu herriz herri ibiltzeko eta emanaldi desberdinak prestatzeko ohitura”, azaldu du Bellidok.

Taldearen etengabeko berrikuntzan, Amurriko Antzokian ikusizunak prestatzera eman zuten jautzia 30. urteurrenarekin batera. Geroztik asko izan dira bertan taularatutako emanaldiak: *Pauso doinuak*, *Nahas-jolas Bat*, *Nahas-jolas Bi...*

Eskualdetik kanpora ere eramane dituzte dantza pausoak, eta hainbat herritako Dantzari Egunean izan dira, Donibane Lohitzunen eta Tolosan, esaterako.

**Dantza baino gehiago**

Azken urteetan ahalegin berezia egiten ari dira, euskal dantzetatik harago Aiara Dantza Taldea “familia” bat dela irudikatze-  
ko, eta bereziki belaunaldi berriekin egiten ari dira lanketa. “Duela urte batzuk erabaki genuen Aiara Dantza Taldera hurbiltzen ziren gaztetxoek ez zutela taldea dantza entseguekin lotu behar soilik. Hori dela eta, aisialdi ekintza ugari an-



Aiara Dantza Taldearen lehenengo argazkia. Aiara Dantza Taldea

# erreportajea

tolatzen ditugu ikasturtean zehar. Udako kanpalekuak egiten ditugu, irteerak prestatu...”, zerrendatu du Bellidok.

**Talde eta elkarte guztiak bezala, boladaka ibili dira berrogei urte luze hauetan Aiara Dantza Taldean ere. Gaur gaurkoz 150 partaide inguru dira taldean, eta azken urteetan nahiko orekatuta mantendu dute kopuru hori**

## Gainditu beharreko ikasgaia

Talde eta elkarte guztiak bezala, boladaka ibili dira berrogei urte luze hauetan Aiara Dantza Taldean ere. Gaur gaurkoz 150 partaide inguru dira taldean, eta azken urteetan nahiko orekatuta mantendu dute kopuru hori. Halaber, badute oraindik gaingaitu beharreko irakasgai bat: mutilen presentzia taldean areagotzea.

Juan Mari Iglesiasek ondo gogoratzen ditu taldearen lehenengo urteak, non mutilak neskak baino nabarmen gehiago ziren. “Gara hartan folklorea nagusiki mutilen kontua zela uste zen, eta askoz gehiago ginen taldean. Gure kasuan zortzi lagun dantzetan, esaterako, deskarteak egin behar izaten genituen, ezin baikenuen mutil guztiok batera dantzatu”.

Egoera oso bestelakoa da orain, eta taldean neskak dira nagusi. “Mutilak lotsatu egiten dira. Erreferenteak behar dituzte. Aurten mutil bat apuntatu da, iazko Euskal Jaian etorri ziren Iruñeko Dantzarien eredu jarraitzeagatik. Horrelako gehiago behar ditugu”, ondorioztatu du Iturratek.



## 40. urteurrena

Edonola ere, indartsu ekin diote taldearen 40. urteurrenari. Ekin-tza mordoa prestatu dituzte 2024an taldearen urtebetetzea ospatzeko. “Gure asmoa hilabetero ekintza bat prestatzea da, herritarrek ez dezaten urte osoan ahaztu Aiara Dantza Taldearen urteurrena dela”, azaldu du Itxaso Bellidok.

Arestian aipatutako jantzi-tradizionalen bilduma erraldoiaren erakusketarekin hasi zuten urtea. Urtarrilean La Casonan egon dira ikusgai taldearen altxortegiko jantziak eta erakusketak oso harrera ona izan duela nabarmendu dute. Inauterien testuinguruan, aldiz, aspaldi egiten zuten kalejira be-

## Maiatzaren 18an dantzaldi-omenaldi berezia egingo dute lau hamarkada hauetan taldetik igaro diren partaide guztiekin

rreskuratuko dute. Martxoan Korrontzirekin batera emanaldia eskainiko dute Amurrio Antzokian, eta hori izango da urteurreneko lehenengo mugarrigarrantzitsua. “Oso urduri gaude, baina gogotsu. Oso argi genuen Korrontzirekin nahi genuela dantzatu 40. urteurrenean. Baina lan handia da, konpromiso handia hartu dugu eta urduritzen hasiak gara. Ez dira dantza tradizional soilak, koreografiak dira euskal dantzen pausoe-kin, baina oso exijenteak”, azaldu diote Aiaraldea Komunikabideari. Emanaldia martxoaren 2an izango da, eta aurki jarriko dituzte sar- rrerak salgai.

Maiatzaren 18an egingo dute

urteurrenaren baitako hurrengo ekimen berezia, Euskal Jaia- rekin batera. Egun horretan dan- tzaldi-omenaldi berezia egingo dute lau hamarkada hauetan tal- detik igaro diren partaide guztie- kin. Hori dela eta, dantzari-ohi, la- guntzaile edota jostun izandakoen bila ari dira. Urteak aurrera egin ahala emanaldi gehiago prestatu- ko dituzte, hala nola, Amurrioko jaietako urteroko dantzaldia. Sor- presa gehiago dituzte esku artean urteurrena borobiltzeko, baina au- rrerago emango dute horien berri. Behin 40. urteurrena igarota, Aia- raldeko plazak dantzaz betetzen jar- raituko du Aiara Dantza Taldeak, *aunitz urtez!*

# erreportajea



Mari Carmen Rabade, Itxaso Bellido, Marina Iturrate eta Juan Mari Iglesias Aiaraldea Taldeko kideak. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

# herriz herri

Laudio

## Markak guztiak hautsi ditu aurtengo San Blas azokak



Azoka 1994. urtean hasi zen egiten, eta orduko antolatzaileak omendu dituzte aurtengo edizioan. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Arrakasta nabarmena izan du aurtengo San Blas azokak. Goizetik gauera luzatu zen egitaraua larunbatean Laudioko Aldai plazan, makina bat ekintzarekin. Terentzio XIV.a txerria izan zen ospakizunaren protagonista nagusia. Osteguneko merkatuan ikusgai egon ostean, animalia hil zuten, eta bere haragia ustiatzeko prozesu guztia jendarteratu zuten larunbat goizean zehar: gorpua erre zuten lehenbizi, eta tripak kendu zizkieten jarraian, garabi baten bidez eskegita jartzeko.

Orduan hasi zen eguneko ekintza deigarrietako bat: txerriaren pisuaren inguruko apustu herrikoa. Ohikoan bezala, dozena-

ka herritarrek parte hartu zuten porran, baina bostek baino ez zuten lortu pisu zehatza asmatzea. Iluntzean pisatu zuten animalia eta orduan konturatu ziren aurtengo azoka, hein batean, historiara pasako dela, inoiz Laudioko San Blasetan egondako txerri pisutsuena izan baita Terentzio XIV.a, 486 kilorekin.

### 30 urteko ibilbidea

Baina txerria ez zen eguneko protagonista bakarra izan. Omenaldien txanda izan zen eguerdian. Lourdes Barbara Barbarak eta Pedro Mari Isusi Caminok jaso dute aitortza aurten, Gorizabal baserrian azken berrogei urtetan eginiko lanagatik. Baina beste hainbat pertsona ere igo ziren oholtzara. Izan ere, aurten 30

urte bete dira San Blas azoka ospatzen hasi zenetik, eta lan horretan 1994tik hona aritu diren pertsonak ere omendu nahi izan zituzten, guztiei aureskua dantzatuta.

Ekitaldi horren ostean banatu zituzten Txerripata Txapelketako sariak. Aretako bizilagunak nagusitu ziren norgehiagokan, lehen bi postuak eskuratuta (Aroa Zaballak lortu zuen lehen saria, eta Carlos Jimenezek bigarrena).

Ehunka lagun animatu ziren azokan sortutako jai giroaz gozatzera. Dantzak, Arloteen emanaldia, herri kirolak, tokiko ekoizleentzako postuak eta beste hainbat jarduera egon ziren egun osoan zehar, argi utziz San Blas azoka, 30 urte beranduago, Laudioko zita esanguratsuenetako bat izaten jarraitzen duela.

## Kiroldegiko eraso matxista salatzeke elkarretaratzea egin du Laudioko Mugimendu Feministak

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Laudioko kiroldegian eraso matxista bat gertatu eta salatu zen larunbatean. Laudioko Eskubaloi Klubak adierazi zuenez, taldeko epaile eta entrenatzaile batek ipurdia ukitu zion klubeko emakume bati. Kirol elkarteak berehala erabaki zuen erasotzailea klubetik kaleratu eta zituen ardurak kentzea, entrenatzailea ere baitzen. Klubeko arduradunek eurek eman zuten erasoaren berri eta jakinarazi zuten berehala esku hartu zutela. Horrela, eraso matxista jasan duen neska zein familia animatu zituzten gertakaria salatzeke eta hala egin zuten. Ertzaintzak kirol azpiegi-

turara jo zuen eta deklarazioa hartzeko eraman zuen erasoaren ustezko egilea. Eskubaloi klubak sare sozialetan zabaldu zuen irakurketa larunbat gauean bertan, salaketa eta hartutako erabakia publiko eginez.

Laudioko Mugimendu Feministak eraso jasan duenari babesa adierazi eta elkarretaratzea egin zuen atzo (otsailak 6) Alberto Acero enparantzana. *Erasorik ez erantzunik gabe* dozenaka lagun batu ziren protesta ekimenera.

### Eraso gehiago

Publikoki Laudion azaleratu zen azken eraso matxista abenduan gertatu zen, eta udan jai esparruan ugariak izan ziren salatu zituztenak.

## Osakidetzako larrialdietako langileen azpiegiturak ez dira egokiak, ESK sindikatuak salatu duenez

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

ESK sindikatuak oharra zabaldu du salatzeke Laudioko larrialdi zerbitzuetako lantokia ez dela egokia, ez bertan aritzen direnentzat, ez materialeri dagokienez.


Berez, modulu berriak instalatu dituzte zerbitzu horren zentro berria eraikitzen duten bitartean eta sindikatuak adierazi du atsedengalak desegokiak direla, materialak eta sendagaiak biltegitratzeko lekurik ez dagoela eta ez dagoela hondakin biologikoak garbitzeko gunerik, ezta inkubagailurako tokirik ere.

Halaber, ESK-k kritikatu du Osakidetzak langileekin hitz egin gabe egin dituela aldaketa guztiak, bai zentro berriaren proiektua, zein behin-behineko azpiegiturak.

Are gehiago, langileen ordezkariak nabarmendu dute oraindik ez dakitela nolako izango den zerbitzu horren tokia Laudion eraikitzen ari diren zentro berrian: "Ez da onargarria gure lanpostuen baldintzak eta gure lana betetzeko beharrezkoak ditugun elementuak ondoen ezagutzen dituzten pertsonekin kontsultatu ez izana, eta proiektu horiek hobetzeko aukerarik ez ematea".

## Laudio

## Ikasturtean garatutako enpresa-proiektuak aurkeztu dituzte Laudioaldeko ikasleek



Enpresa-plan bat garatu eta euren ideiak jendaurrean aurkeztu zituzten ikasleek. [Aiaraldea.eus](#)

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Ikasapresa azokaren III. edizioa ospatu dute gaur Laudioalde Lanbide Heziketa Eskolan. Goi eta Erdi-Mailako Zikloetako bigarren urteko ikasleek ikasturtean garatutako proiektu desberdinak aurkeztu dituzte.

Enpresa eta ekintzailtza irakasgaiaren barruan, ziklo desberdinetako ikasleek enpresa plan bat garatu dute, proiektu bat diseinatu, aurrera eramane eta saltzeko helburuarekin. Funtsan, enpresa-txiki bat zerotik sortu dute; horretarako beharrezkoak diren baliabide guztiak ekoiztuta: web orria, diseinatutako produktuen prototipoa... Lan horren guztiaren emaitza aurkez-

**Laudioaldeko irakasleak oso pozik azaldu dira ekimenak ikasleen artean izan duen harrera eta hauek erakutsitako inplikazio mailarekin**

tu dute gaurko azokan. Laudioaldeko irakasleek egitasmoaren diziplinarreko harremanean egin dute azpimarra. Ziklo desberdinetako ikasleak jarri dituzte batera elkarlanean, bateko zein beste jakintzak eta ezagutzak batu produktu erakargarri bat sortzeko helburuarekin.

Ikasleek aurkeztutako egitasmoak orotarikoak izan dira, batzuk eskala handikoak, beste batzuk etxean erabiltzeko modukoak, baina guztiak proiektu egingarrietan oinarritutakoak. Besteak beste, aparkaleku domotikoa, automatizatutako erosketak, alkoholimetroa, negutegi automatizatua edota gailu elektronikoa desinfektatzeko aparatua dira azokan jendarteratutako ideiak.

## “Herrietara ‘drag’-a eramaten jarraituko dugu”



Mahaingurua eta drag ikuskizuna egon ziren Orbeo Etxean. [Aiaraldea.eus](#)

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Gorputz disidenteek hartuzuten ostiralean Orbeo Etxeko ohol-tza, *Somos la Santa Inqueerseccion* lemapean. Bilerabi eta Ay Dragmela kolektiboek antolatu zuten ekimena eta dozenaka lagun bertaratuz ziren arratsaldetik gaue-ra bitartean.

Mahainguru batekin abiatu zuten egitaraua. "Aliantza bibollosa" izan zuten hizpide solasaldian. Bi kolektibo antolatzaileetako lau kide hartu zuten hitza bertan, bi Laudiokoak eta beste bi Bilbotik bertaratutakoak. Hainbat gai atera zituzten mahai gainera: bisexual edota bollerekin pairatzen dituzten zapalkuntzak, "gorputz disidenteentzako" espazio seguruen beharra edota hirian eta herrietan bizitzearan artean dauden ezberdintasunak, besteak beste.

Azken puntu horri lotuta, ondorioztatu zuten gorputz disidenteentzako espazioak herrietan ere garatu behar direla, eta horri begirako urrats moduan kokatu zuten ostiraleko ekimena.

Mahaingurua amaituta, festa giroa nagusitu zen Laudioko Gardea auzoko Baserri okupatuan. Jokoak antolatu zituzten lehenbizi, eta drag ikuskizuna eskaini zuten jarraian Ay Dragmela taldeko kideek, Blau Piqué artista kataluniarraren parte hartzearekin.

Honakoa ez da izan Ay Dragmelako kideek Orbeo Etxeko ohol-tzaan ikuskizuna taularatu duten lehen aldia. Iazko irailean ere bertan egon ziren, Txao Titis jaialdian. Oraingoan ere, positiboki baloratu dute ekimenak izandako harrera, eta ziurtatu dute "herrietara drag-a eramaten" jarraituko dutela.

**YANDIOLA**  
HORTZ KLINIKA LAUDIO

Mediku zentroa RPS: 314/18  
Karmen Kalea 13, behea  
LAUDIO (Araba)  
946 72 31 00  
[www.yandioladental.com](http://www.yandioladental.com)

75 urte zurekin



PADI PROGRAMA



INPLANTEAK



3D ERRADIOGRAFIKAK

**QUICK PC REPAIR**  
Informatika argi eta erraz



ETXEZ  
ETXEKO  
ZERBITZUA  
gainkosturik  
gabe

· Salmenta · Konponketak

· Informatika-ekipamenduen eta STen inguruko prestakuntza ematen dugu negozio eta etxetarako

· Bezeroaren premietara egokitutako fakturen eta tikieta diseinua, eta kudeaketa-programen diseinua

Galdetu PC eta ordenagailu eramangarrien **REMOVE PLANARI** buruz

Dionisio Aldama 2, AMURRIO · 685 70 19 56 · 945 03 48 12  
[www.quickpcrepair.es](http://www.quickpcrepair.es) · [quickpcrepair@quickpcrepair.es](mailto:quickpcrepair@quickpcrepair.es)

# herriz herri

Aiara

## Harsco multinazionalak lantegi berria irekiko du Murgan eta obrak hasi ditu jadanik



Hasi dira jadanik Murgako obrak. [Aiaraldea.eus](https://aiaraldea.eus).

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Harsco multinazionalak obrak abiatu ditu Murgan lantegi berria eraikitzeko. Kider enpresak okupatzen zuen lursaila eskuratu du konpainiak eta bi ekoizpen prozesu egingo ditu bertan. Alde batetik, altzairutegien hondakinak birziklatzea eta, bestetik, horiekin ekoasfaltoa produzitzea, zeinak karbono aztarna txikiagoa duen.

Harscoren aurreikuspenak dira 195.000 tona tratatzea urtero eta, hedabideetan azaldu dutenez, harreman estua dute inguruko altzairutegiekin (Sidenor, Arcelor Mittal...). Berez, altzairua ekoizteko hornitzen ditu multinazionalak enpresa horiek eta orain produktu horrek sortzen dituen hondakinak %95 berreskuratzea du helburu.

Harscok urrian eskuratu zuen baimena lanak hasteko eta urtariraren 8an ekin zion obrak egiteari. Bere ideia da udan bertan irekitzea fabrika berria.

### Eusko Jaurlaritzaren bultzada

Egitasmoa lotuta dago Eusko Jaurlaritzak sustatutako hainbat proiekturi, ekonomia zirkula-

### Ekoasfaltoa sortzera bideratuko du enpresak bere jarduera, altzairutegien hondakinak birziklatuta

rra bultzatzeko Hondakinaren Prebentzio eta Kudeaketarako Euskadi 2030 Planaren barruan. Garapen Ekonomiko, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila hamaika proiekturen atzean egon da hondakinak balorizatze eta 31,2 milioi euroko dirulaguntzak banatu ditu jadanik.

Harsco enpresa estatubatuarak 32 herrialdeetan funtzionatzen du eta altzairuaren ekoizpeneko osagaien munduko hornitzaile handienetakoa da.

### ANALISIA

**Harsco Murgan: Aiarako proiektu energetikoen bonbardaketa azaltzeko falta zen pieza?**



## Luioandoko bizilagunak postaririk gabe geratu direla salatu du Administrazio Batzarrak

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Postaririk gabe geratu dira Luioandoko bizilagunak. Urtariraren lein erretiratu zen ordura arte herrian postari aritutako langilea, eta, geroztik, Correosek ez du ordezkorik kontratatu. Postari faltak gutunak erregulartasunez jaso ezin dituzten 1.200 lagunei eragiten die.

Luioandoko Administrazio batzarrak azaldu du arratsaldetan paketeak banatzen dituen Correoseko langilea arduratzen dela orain gutun gutxi batzuk banatzeaz. "Banaketa ez dute herri guztietatik egiten, soilik paketeak banatu

behar dituzten auzoetatik. Hori dela eta ez dira gutunak erregulartasunez iristen", aipatu dio Maite Alonso Administrazio Batzarreko kideak Aiaraaldeko Komunikabideari.

Erakunde publikoak jarritako konponbidea "partxe" bat dela salatu du Alonsok, eta uste du "bidegabea dela beste arduratzaile batzuk dituzten Correoseko langileei aparteko lan-kargu gehitzea".

Egoera bideratzeko asmoz, Correoseko arduradunekin jarri dira harremanetan Luioandoko bizilagunak. Azaldu dietenaren arabera, jubilatutako postaria ez ordezkatzearen erabakia Madrilgo bulegoetan hartu dute.

Amurrio

## Raisa Alava ilustratzaileak jasoko du 2024ko GUK saria



Raisa Alava berak diseinatutako horma-irudiaren aurrean. [Aiaraldea.eus](https://aiaraldea.eus)

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Raisa Alava artista amurriarrak jasoko du aurten GUK Saria. Amurrioko herriak eskaintzen duen aitortza nagusia da honakoa, eta aipamen honekin Alavaren ibilbidea omendu nahi izan dute. "Aintzatespenak bere lorpen artistiko nabarmenei balioa eman nahi die, 2023ko

Frantziako Tourreko kartelari egindako ekarpena nabarmenduz, bere lana mundu mailako proiektzioan kapitulatu baitzuen", adierazi dute Udaletik.


Berriki bere lehenengo komikia argitaratu du Zuhatzako artistak: *Sumidero*.

Saria martxoaren 16an, Amurrio Antzokian egingo den gala batean jasoko du Alavak.



## Urduña

## “Gazte Asanbladari indar asko geratzen zaio oraindik, eta gauza politak egin ditzakegu datozen urteetan hirian”



Gazte ugari elkartu ziren Urduñako Lanbide Heziketa Eskolan. **Urduñako Gazte Asanblada**

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Azken urteetako inertziak irauli eta belaunaldi berriak aktibatzen asmoz, bilera irekia antolatu zuten Urduñako Gazte Asanbladako kideek iragan urtarrilaren 26an. "Indar handia galduta" ikusten zuten asanbladan orain arte bertako kide izandakoek; "hainbat ekintza ezin izan ditugu aurrera atera azken urteetan gazteen inplikazioa eta parte hartzea oso txikia zelako", azaldu diote Aiaraldea Komunikabideari.

Inplikazio faltaz harago ere, hiriko gazte belaunaldi berrien artean Gazte Asanbladaren eta honek egindako ibilbidearen inguruko ezjakintasuna ere oso handia zela ohartarazi zuten Gazte Asanbladan.

### Elkar ezagutu eta indartu

Asanbladarekiko ezjakintasuna gainditu eta kide berriak batzeko helburuarekin, belaunaldi desberdinetako gazteak batzeko ahalegina egin zuten Urduñako Lanbide Heziketako eraikinean iragan ostiralean egindako bilera irekian. "Gazte Asanbladaren helburuak zeintzuk ziren eta urteetan egindako lana zein izan den belaunaldi gazteei erakusteko baliatu genuen hitzordua. Elkar ezagutzeko eta proposamen berriak jaso-

tzeko aukera paregabea zela ikusi genuen ere", nabarmendu dute Asanbladako kideek.

Hitzorduek izandako harre- rarekin oso pozik agertu dira Urduñako Gazte Asanbladako lagunak: "Hainbat kuadrilla gazte bertaratu ziren eta oso grio atsegina sortu zen. Proposamen ugari bildu ziren. Gazteak oso motibatuak eta inplikatzeko gogoekin ikusi genituen".

### Berriro ere martxan

Urtarrilaren 26ko aurkezpenaren ostean berriro ere martxa hartu du Urduñako Gazte Asanbladak. Kide berriak batu dira taldera, eta askoz gehiago dira ekarpena egiteko prest agertu direnak. "Ikusten dugu gazteek badutela herriaren alde lan egiteko gogo", azaldu dute asanbladako kideek.

Hilabetero ekintza bat antolatzeko konpromisoa hartu dute, eta otsailean antolatuko dute lehenengoa: mus txapelketa. Horrez gain, urte luzez Gazte Asanbladak egindako ekintzak mantenduko dituzte ere.

Iragan asteburuan, esaterako, kintoei bazkaria eskaini zieten eta inauterietan gazte guztiak batera moztzeko gai komun bat jarri dute: Olinpiar jokoak. "Urduñako Gazte Asanbladari indar asko geratzen zaio oraindik, eta gau-

za politak egin ditzakegu datozen urteetan hirian", gorai-patu dute.

### Ibilbide oparoa

26 urte beteko ditu aurten Urduñako Gazte Asanbladak, eta urte hauetan guztietan ibilbide oparoa jorratu du hirian gazteak antolatzeko espazioak eskainiz. Aisialdirako hamaika ekimen prestatu dituzte, horien artean arrakastatsuenetako bat udaberriaren antolatutako Gazte Egunak izan dira.

Gazteentzako espazioak eskaintzeko ahalegin horretan gaur egun Alondegia kokatzen den lekuan zegoen merkatu zaharrean zabaldu zuten Gaztetxea, harik eta 2007ko urtarrian Urduñako Udalak eraikina eraitsi zuen arte. Bost urtez Gaztetxerik gabe egon ostean, 2012an alde zaharreko erakin bat okupatu zuten, eta bertan eman zioten segida jardunari.

Orotariko ekintzak antolatu zituzten bertan: kontzertuak, hitzaldiak, eskalada txapelketak, auzolanak... 2021ean, ordea, modu mugagabearen eten behar izan zuten Gazte-txearen erabilera eraikinearen egoera estrukturalaren ondorioz. Eten hori bukaera ez zela aldarrikatu zuten Urduñako Gazte Asanbladatik, eta gaur egun indarberrituta jarraitzen dute aurrera.

## Urduñako Haurreskola publikoan kontziliazioa ahalbidetzeko sinadura bilketa egin dute



Ikasturteko ordutegiak aldatu dituztela salatu dute. **Aiaraldea.eus**

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Urduñako Haurreskola publikoko gurasoek sinadurak biltzen aritu ziren iragan astean. Egitasmoaren helburua da salatzea Hezkuntza Sailak ezarri dituen ordutegi berriak ez direla bateragarriak kontziliazioarekin.

Izaro Otaegi Tapia gurasoen ordezkariak azaldu du indarrean dagoen ikasturtean ordutegiak okerrera egin dutela, eta nabarmen, gainera. "Aurreko ikasturtean umeak sartu ahal ziren 07:30etik 10:00ak arte. Orain beranduago irekitzen dituzte ateak, 08:00etan, eta 09:30ean beranduenez egon behar dira barruan".

Horrez gain, arratsaldeko ordutegia ere murriztu dute: "Iaz 16:30an arte zegoen irekita Haurreskola, eta hiru ume edo gehiago egonez gero, 17:00ak edo 18:00ak arte. Orain, aldiz, 14:00etan bukatzen da zerbitzua, edota 16:00etan hiru ume

edo gehiago badaude". Gauzak horrela, Otaegik argitu du aldaketa zerbitzuaren doakotasunarekin batera heldu dela: "Ustez, arau berriaren xedea kontziliazioa erraztea da, baina txandaka lan egiten duten gurasoek ez dute aukerarik ordutegi horietara moldatzeko eta, ondorioz, bestelako bideak bilatzera behartuak izan dira".

Horrek eragin zuzena izan du matrikulazioan. Haur gutxiagok eman dute izena, bitarteko pribatuetara jo behar izan dutelako guraso askok. "Horiek ez dute ordutegi mugarik", erantsi du Izaro Otaegi Tapiak.

Egoera iraultzeko sinadura bilketan jasotako babesak Hezkuntza Sailera bidali dituzte gurasoek. "Jokin Bildarratz Sailburuaren esku uztea da gure asmoa, ezarri dituen ordutegiak ez dute zentzurik kontziliazioaren ikuspuntutik eta aldatu behar dira zerbitzuaren etorkizuna bermatzeko".

Zure egunerokoaren parte gara

OFICINA CENTRAL  
Euzkadi, 10000 Leizor - Bizkaia  
www.cuadribus.com

T. 945 890 804  
info@cuadribus.com

haz

RNR

CuadraBus

# herriz herri

Okondo

## Etxeko suteen aurkako SUA sistema aurkeztu du Julian Iantzik Okondon



Julian Iantzik bideratu zuen aurkezpen ekitaldia. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Suteen prebentziorako sistema berritzailea aurkeztu zuen iragan urtarrilaren 30ean Okondoko Udalak frontoian; Mundo Pua euskal enpresak garatutako SUA sistema.

Etxeko sukaldeetan pizten diren suak itzaltzeko diseinatutako prebentzio sistema aitzindaria da euskal enpresak sortutakoa. Adimen artifizialaz baliatuta, sua detektatu eta automatikoki itzaltzen du. Horrez gain, sistemak automatikoki bidaltzen die abisua larrialdi-zerbitzuei.

### Dirulaguntzak

Okondoko Udalak dirulaguntza plana aurkeztu du datozen lau urteetarako, herritarrek gaur aurkeztutako sistema instalatu deza-

### Suteen aurkako prebentzio plan berriaren barruan, Mundo Pua enpresak garatutako SUA sistema aurkeztu zuten

ten euren etxeetan. Bereziki 65 urtetik gorako bizilagunei zuzenduko die programa Udalak.

Egitasmoa, 2022an sute batek hiru okondoar hil ostean abiatutako suteen prebentziorako plan berriaren barruan dago kokatuta.

### Julian Iantziren erakustaldia

Iragan astean egin zuten sistema berritzailearen aurkezpena Okondoko Kultur Etxean. Bi aurkezpen egin zituzten, erakunde publikoentzat lehenengoa, eta herritarrentzat bigarrena. Julian Iantzi telebista aurkezle ezagunak gidatu zuen aurkezpena, eta bertan izan ziren Arabako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak eta Amurrio eta Orozkoko alkateak. Bertaratu-takoek bertatik bertara ezagutu ahal izan zuten SUA sistemaren funtzionamendua.

Aiaraldea

## Sahararen aldeko elikagai bilketa egin dute eskualdeko saltokietan

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko Lagunen Elkarteko kideak Laudio eta Amurrioko Eroskiren saltokietan eta Artziniegako UNIDE supermerkatuan egon ziren iragan astean, oinarrizko produktuak jasotzen: leka-leak, azukrea, pasta, hegaluze

eta sardina latak, arroza eta konpresak.

Horrez gain, dohaintza ekonomikoak egiteko kontu korrontea ere jarri dute nahi duen ororen eskura: ES79 3035 0089 1608 9104 1001. Gzutira laurogei eta ehun tona artean biltzea da antolatzaileen aurreikuspena. Elkartasun karabana Donostiatik abiatuko da, iaz Lau-diotik atera zen.



**AITZOL MOYA OLIVER**  
ERNAIKO KIDEA

**“Garraio publiko duina”**



Aiaraldeko gazteok garraio publikoa egunero erabiltzen dugu eta honen egoera prekarioa jasan behar dugu uneoro. Guztiontzat dira ezagunak atzerapenak, azken orduko kbertan behera geratzea eta bidaien prezioen igoera.

Renfe C-3 aldiriko trenen egoera kaxkarra da. Inbertsio milioidunak saltzen dizkiguten arren, egunerokotasunean aldiriko zerbitzuak ez ditu gazteon beharrak asetzen. Astebururo herriz herri joateko ordutegi ratioa murriztea, gaueko trenak ezabatu izana edota azken orduan tren zerbitzua bertan behera uztea egoera horren adibide garbiak dira.

Autobus zerbitzuaren egoera ere antzekoa da. Gasteizera, Murgiarara... ikastera edota lan egitera goazen gazteok Alavabus erabiltzen dugu. Ikasle askoren ordutegiak ez du bat egiten autobusaren ordutegiarekin, askotan aurrerapen handiekin hartu behar izaten ditugu klasera joateko.

Jarraituz, garraio publikoak prekario bihurtzen du herri txikietako gazteon egoera, aldiriko bus zerbitzu murriztua dela eta. Asteburuetan Artziniegatik Amurrionara joateko bakkarik lau bus eskaintzen dira.

Gazteok gure bizitzak duintasunez aurrera eramateko beharrezko zerbitzua da garraioa. Horregatik, premiazkoa da garraio publikoaren maiztasuna handitzea, zerbitzua zabaltzea eta prezio duinak ezartzea.

Gazteok Euskal Herrian bizitza duinak behar ditugu!  
Batu bizitzen aldeko barrikadara!

## Aiaraldea

# Aiara eta Okondo artean zentral eoliko berria eraikitzekeo prozedura hasi dute



Helegiteak biltzeko erakusketa jarri zuten Orozkon. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
Aitor Aspuru Saez

Iragan astean Arabako Foru Aldundiak jakinarazi zuen Las Americas 20 zentral eolikoaren instalatzeko prozedura abiatu zuela, Arena Green Power 20 enpresari hasierako onarpena emanda.

Egitasmoak sei aerosorgailu dauzka eta Aiara, Okondo eta Gordexola artean instalatzeko asmoa daukate, 35 Mw ekoizteko.

Aiarako Udalak ezustea hartu du egitasmo horrekin eta adierazi du ez duela zerikusirik udalerrian aurreikusita dagoen beste zentral eolikoarekin, Ferosca II-rekin, alegia.

Guztira, energia berriztagarriari lotutako hogeitauko proiektu iragarri dituzte Aiaraldean: Aiaran,

**Las Americas 20 da parke berri honen izena eta sei aerosorgailu ekarriko lituzke eskualdera**

Okondon, Urduñan, Gorobelen, Laudion, Orozkon, Ganekogortan... eta kontrako mobilizazioak zein ekimenak antolatu dituzte, Aiaraldeko Mendiak Bizirik plataformaren eskutik.

**Erakusketa Orozkon**

Hain zuzen ere, plataforma ekologistak abiatutako ekimenetako bat Orozkoko Museoa inauguratutako erakusketa izan da. Urtarrilaren 31ra arte egon da ikusgai, eta Green Capital Development enpresak Jesuri mendiguruan eraiki nahi duen parke eolikoaren kalteak bistaratzeko izan du helburu. Izan ere, enpresak berrehun metroko altuerako bost aerosorgailu instalatu nahi ditu bertan, eta urtarrilaren 30era arte zegoen helegiteak aurkezteko epea.

[ura](http://ura.eus) URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA

[EUSKADIKO ITUN BERDEA](http://EUSKADIKO.ITUN.BERDEA)

[EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO](http://EUSKO.JAURLARITZA.GOBIERNO.VASCO)

Betidanik, beste inork baino gehiago irabazi diogu urari. Baina inoiz ez dugu izan dena galtzeko orain dugun arriskua.

**EZ DAGO URA BAINO INDARTSUAGORIK**

Elena Arzak, Chef.  
3 Michelin Izar, 2012ko Munduko Emakume Chef Onena.

[www.indartsuagoak.eus](http://www.indartsuagoak.eus)

# erreportajea

“Oles oles amalurra esna zaitez!”. Makilak eskutan kalera atera ziren asteburuan Aiaraldeko bizilagunak, Santa Ageda bezperan. Negu berezi bezain epel baten ostean, kantuka eta kolpeka esnatu dute lurra.

## Lurra kantuz esnatu dute Aiaraldeko hainbat txokotan

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Ohitura zaharrei eutsiz, Santa Ageda bezpera probestu dute Aiaraldeko dozenaka herritarrek kantuan atera eta makilak astinduz lurra esnatzeko. Negua oraindik igarri ere egin ez den arren, urta-

roa amaierara iristen ari denaren seinale da. Amurrión eta Urduñan kintoek egin bezala, kalera atera ziren ere Artziniegan, Arrankudiagan, Orozkon eta Laudion.

Orozkon Agate Deuna Abesbatzako kideak herriko auzo gehien-tetatik igaro ziren kantuan: Murueta, Garai, Beraza, Gallartu, Sautu,

Zalao, Urigoiti, Usabel, Aresketa, Ibarra, Torrezar, Bengoetxea, Rekabasterra, Okeluri, Presatxu, Kantarrana eta Zubiaur.

Artziniegan Otsati Elkarteak egun osoa igaro zuen herritik kantatu eskean. Arrankudiagan, aldiz, arratsaldean batu ziren herritarrak plazan.



# erreportajea



**selene**  
fruitadenda

Doako etxez etxeko zerbitzua  
Okm produktuak · Garaiko fruitak eta barazkiak  
Egunero Iza okindegiko ogia  
Pertsonalizatutako fruten eta barazkien saskiak

945 092 550 · Landako kalea 1, Amurrio • [f](#) [i](#) [@](#) @fruitadenda\_selene

# erreportajea

Amurrion eta Urduñan Santa Ageda bezperako protagonistak gazteak dira. Urtez urte herriz herri eta baserriz baserri aritu dira eskean bi udalerrietako kintoak. Aurten 2006an jaiotakoek hartu dute haien gain tradizioa bizirik mantetzearen ardura.

## Tradizioaren makila, eskuz esku eta belaunaldiz belaunaldi



**“Guk antolatzen dugu, baina herri guztiaren festa da kintoena”**

**SENDOA CHARTE BAREA ETA ANE SAENZ LANDIBAR** DIRA AURTENGO AMURRIOKO KINTOETAKO BI. ORAIN ARTE EGIN DITUZTEN EKIMENEN ETA OTSAILAREN 16RAKO PRESTATU DUTEN JAIAREN INGURUAN MINTZATU DIRA.

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

**Aurten zuei egokitu zaizue Amurrioko Kintoak izatea. Zer egin duzue egunotan?**

*Sendoa Charte Barea:* Igandean meza izan genuen, eta elizaren barruan abestu genuen. Ondoren, gure kuadrillekin batu ginen auzoetatik kantatu eta dirua jasotzeko.

*Ane Saenz Landibar:* Taldeka edo kuadrillatan bildu ginen eta goiz osoa eman genuen abesten inguruko zonaldeetatik. Eguerdian bakoitzak bere kabuz abestu genuen...

*Sendoa:* Eta gero, arratsaldeko zortzietan, guztiak batu ginen San Antonen, elkarrekin abesteko.

**Kintoen jaia era antolatu duzue otsailaren 16rako.**

*Sendoa:* Bai. Fabriketara eta eskoletara joko dugu lehenbizi.

*Ane:* Gero, eguerdian, bazkaria egingo dugu kinto guztiek batera, eta arratsaldean festa hasiko da. Elektrotxaranga egongo da lehenbizi, eta gero Zutik erronomia eta DJ Blessive. Ondoren, gaueko hamabietan, denok batera abestuko dugu berriz ere, Herriko plazan.

**Zenbat kinto zarete aurten? Nola hasi zineten antolatzen?**

*Sendoa:* 121 gara guztira. Hasiera apur bat kaotikoa izan zen. Gutako batzuk udaletxera joan ginen zer eta nola egin galdetzeraz. Marcosekin hitz egin zuten eta abenduaren 15ean hasi ginen entseguekin. Ostiraletan egiten ditugu, Zabaleko Eskolako frontoian, 20:30etik 22:00ak arte.

*Ane:* Marcosekin egiten ditugu entseguak, berari eskertu behar diogu gurekin ematen duen denbora eskaintzea.

**Nola egiten ari zarete jaia eta gainontzeko gauzak antolatzeko?**

*Sendoa:* Kuadrilla bakoitzak ardura bat hartu zuen, dena hain kaotikoa izan ez zedin. Gure kuadrillan, adibidez, pegatzen kontua kudeatu dugu.

*Ane:* Guk fabriketara eraman beharreko gutunak bideratu ditugu. Talde bakoitzeko bi ordezkari hautatu genituen, eta ordezkarien artean ari gara guztia antolatzen.

*Sendoa:* Bai, bestela zaila delako 121 pertsonen artean antolatzeko. Baina ondo moldatu gara azkenean.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Gaztetxeko kideei igandean espazioa uzteagatik festa egiteko.

**Kintoen jaia zerbitzu militarrean lotuta egon zen jatorrian. Zuentzat, zertan datza kinto izatea?**

*Ane:* Gu harro gaude kintoak izateaz. Galdu du zerbitzu militarrekin zuen lotura...

*Sendoa:* Lehen bakarrik mutilak ziren kinto, eta orain neskek ere badaude eta taldeak askoz handiagoak dira.

*Ane:* Ilusio handiz egiten dugun festa bat da. Guk antolatzen dugu, baina herriko festa bat da, guztiok ondo pasatzeko. Bada pixka bat heldutasunerako pausoa. Txikitan ikusten genuen kintoek eskoletan pegatinak banatzen zituztela eta oso ondo pasatzen zutela. Ilusioz bizi dugu.

*Sendoa:* Niretzat kintoak aurten badira oso garrantzitsuak. Nik daukadan makila genetikoa da: nire aitona eraman zuen txikitan, eta orain nik eramatea sekulakoa da. Txikiak ginenean kintoak etortzen zirenean sekulako festa sortzen zen, ilusio handia sortzen zigun, eta aurten gu arituko gara horretan, oso ederra da.

# “Espero dugu datozen belaunaldiek ere kintoen tradizioari heltzea eta ohitura ez galtzea”

2006AN JAIOTAKO GAZTEEI DAGOKIE AURTEN KINTO IZATEA URDUÑAN. **IRATI GARCIA ARBAIZAGOITIA** ETA **AINHOA ARRAÑA ALONSO** DIRA GAZTE HORIETAKO BI, ETA PRESTATU DUTEN EGITARAUAREN INGURUAN MINTZATU DIRA.



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

**Aurten zuei dagokizue kinto izatea. Zer suposatzen du horrek zuentzat?**

**Irati:** Txikitatik herriko kaleetan ikusi dugun ospakizuna izan da, eta aurten ilusio bereziarekin prestatu dugu. Oso gogotsu gaude, asko.

**Ainhoa:** Tradizio bat da herrian, eta oso pozik gaude hau mantentzeagatik. Espero dugu hurrengo belaunaldiek ere honi heltzea eta tradizioa ez galtzea.

**Zenbat kinto zarete aurten?**

**Irati:** Aurten 30 kinto gara.

**Nola ospatuko duzue tradizio hau?**

**Irati:** Larunbatean, Santa Ageda bezpera aprobetxatuz, Santa Ageda kantua abestu genuen hiriko hainbat txokotan. Foru enparantzan elkartuko ginen goizean goiz, eta bertan abestu genuen lehenengo aldiz, *piloia*ren inguruan. Gero, hiru taldetan banatu ginen, Urduñako herrietatik kantuan aritzeko. Talde batek Saratxora jo zuen, beste batek Lendoñoko bidea hartu zuen, eta azkenengo taldea Arrastariara joan zen.

**Ainhoa:** Eguerdian, 15:00etan, plazan elkartu ginen beste behin. Abestu ostean, Urduñako Gazte Asanbladak prestatutako bazkarira joan ginen. Gauerdian *piloia*ren inguruan elkartu ginen azkeneko aldiz abesteko.


**Asko entseatu duzue azken asteetan?**

**Ainhoa:** Bai, astean behin elkartu gara entseatzeko. Abuztuan hasi ginen antolatzen, orduan egin genuen kintako WhatsApp taldea. Abestiak entseatzeko abenduan hasi ginen. Hasieran zaila zen erritmoa jarraitzea, baina gutxika-gutxika hobetzea lortu dugu.

**Martxoan kintoen festa ospatuko duzue.**

**Irati:** Bai, martxoaren 2an izango da. Eskean bildutako dirua baliatuko dugu eguna antolatzeko. Martxoaren 2an ere Foru plazan elkartuko gara abesteko eta jarraian mezara joango gara, Antiguako santutegira. Eguerdian haurrentzako jolasak egongo dira enparantzan eta guk trikipoteoa egingo dugu herritik. Arratsaldean batukada, Sembrando Kaos taldea, Zutik erromeria eta DJ Masa egongo dira.

**Ainhoa:** Larunbateko eguna gertuagokoa sentitzen dute Urduñako auzokideek, baina espero dugu martxoaren 2an inguruko herrietatik ere jendea etortzea.



# agenda

2024/02/07  
2024/02/21

AIA  
RAL  
DEA

FAK  
TO-  
RIA  
KOMUNIKABIDE FAKTORIA  
www.aiafaktoria.com



## Irudimenaren festa lehertuko dute *aratu*steek Aiaraldean

Lurra esnatzearekin batera ate-joka datoz inauteriak. Datorren asteartera bitarte asko-  
tariko ekintzak antolatu dituzte Aiaraldeko  
herrietan aratusteak ospatzeko.

Lehen ospakizunak eskoletan egingo di-  
tuzte ostiralean eta Okondoko eta Laudioko  
haurrek herrira aterako dituzte beren mo-  
zorroak. Orozkon ere ostiralean ospatu-  
ko dute aratusteen egun handia, urtez urte  
arrakasta gehiago duen Orozko Talent Play-  
back lehiaketarekin.

Nolanahi ere, egun handiak larunbata  
eta asteartea izango dira eskualde osoan.

Otsailaren 10ean Artziniegan, Amurrion,  
Laudion eta Urduñan egingo dituzte ohi-  
ko mozorro desfile eta kalejirak, askotari-  
ko programazioak lagunduta. Aiarako Gaz-  
telekuan inauteri jaia ospatuko dute arra-  
tsaldean. Laudion, gainera, SuziriJai Batzor-  
deak egitarau oparoa prestatu du. Herriko  
gazteei "historia" porposatu die mozorrotze-  
ko gaia, eta gauean kontzertuak egongo dira

Aldai Plazan: Kaotiko, Jotake erromeria eta  
DJ Reymi.

Arrankudiaga-Zollon ere, larunbat arra-  
tsaldean ospatuko dituzte inauteriak; po-  
teo, afari eta Atrikipunk taldearen konzert-  
tuarekin.

Inauterietako asteartea izango da ospaki-  
zun bereziari amatera emateko eguna. Amu-  
rrión Kakarro Birigarro erreko dute eta Lau-  
dion Leziagako Sorginak gaiztakeria erre-  
ko du. Urduñan ere haurrentzako egitaraua

### MUSIKA

**02.08 Osteguna**  
09:00 LAUDIO  
GARAZI GOROSTIAGA  
+ IZARNE OYARZABAL,  
RADITHOR ETA  
ABYMENABAR  
Orbeiko Etxea

**02.09 Ostirala**  
23:30 LAUDIO  
CHARLES RAMIREZ, OKE,  
ANDER G  
Sorgin Taberna

**02.11 Igandea**  
13:30 URDUÑA  
SANTA ZEZILIA BANDAREN  
KONZERTUA  
Foru Plaza

**02.16 Ostirala**  
23:00 AMURRIO  
ZUTIK ERROMERIA ETA DJ  
BLESSIVE  
Amurrioko Kintoen Jaia  
Juan Urrutia Plaza

### KIROLA

**02.09 Ostirala**  
09:00 URDUÑA  
EMAKUMEZKOEN  
FUTBOLAREN BILAKAERA  
Hitzaldia Eli Ibarra, Maite  
Sobron, Maitane Basualdo,  
Maite Muguruza eta Gurutze  
Badillo futbolarien eskutik  
Orduña Hiria Museoa

**02.11 Igandea**  
11:30 LAUDIO  
XVI. LAUDIOKO HERRI  
KROSA  
Zumalakarregi etorbidea

### HITZALDIK

**02.08 Osteguna**  
08:30 LAUDIO  
ZER GERTATZEN ARI DA  
OSAKIDETZAN?  
EH Bilduk antolaturiko  
hitzaldia  
Kultur Etxea

**02.08 Osteguna**  
09:30 AMURRIO  
KORRIKAREN AURKEZPENA  
Amurrioko AEEK

**02.16 Ostirala**  
20:00 LAUDIO  
TAROTEAN MURGILDUZ  
Faktoria

### INAUTERIAK

**02.08 Osteguna**  
09:00 AMURRIO  
INAUTERITAKO  
KONZERTUA

**02.10 Larunbata**  
14:30 LAUDIO  
HERRI BAZKARIA  
Suziri Jai Batzordeak  
antolatuta  
Laudio BHI

**02.10 Larunbata**  
18:00 AIARA  
INAUTERI JAIA  
Luiaondoko GazteLekua

**02.10 Larunbata**  
18:00 URDUÑA  
INAUTERI DESFILEA  
Gesaltza Txarangak girotua  
Urduñako Eskola

**02.10 Larunbata**  
18:30 LAUDIO  
ARATUSTEETAKO DESFILEA  
Lezeagako Sorginarekin  
Lamuza kalea

**02.10 Larunbata**  
19:00 LAUDIO  
KAKARRO BIRIGARRO  
MOZORRO LEHIAKETA  
Desfilea eta txokolate jana  
Juan Urrutia Plaza

**02.10 Larunbata**  
19:00 ARTZINIEGA  
KALEJIRA ETA MOZORRO  
LEHIAKETA  
Toñin Luengas Frontoia

**02.10 Larunbata**  
19:00 ARRANKUDIAGA-ZOLLO  
POTEO MUSIKATUA ETA  
HERRI AFARIA  
Afararen ostein Atrikipunk  
Gizarte Etxea

**02.10 Larunbata**  
19:30 URDUÑA  
BERBENA BERRIZTU  
TALDEAREKIN ETA DJ  
VARRO  
Foru Plaza

**02.10 Larunbata**  
22:00 LAUDIO  
KAOTIKO, JOTAKE  
ERROMERIA ETA DJ REYMI  
Suziri Jai Batzordeak  
antolatuta  
Aldai Plaza

**02.10 Larunbata**  
22:30 AMURRIO  
KALEJIRA ROCKALEAN  
ELEKTROTXRANGAREKIN  
Juan Urrutia Plaza

**02.11 Igandea**  
17:00 AIARA  
PERLI ETA KOXKOLO  
Otueta Gizarte Etxea

**02.13 Asteartea**  
17:00 ARTZINIEGA  
HAURRENTZAKO ESKULAN  
TAILERRA  
Toñin Luengas Frontoia



# Arabako Bertsolari Txapelketa



Final laurdenetan murgilduta dago Arabako Bertsolari Txapelketa. Izarran eta Oionen ospatutako saioen ondoren, bertsolarien arteko norgehiagoka Aiaraldeara iritsiko da asteburu honetan. Otsailaren 11n Laudioko Kasinoan jokatuko da azken final laurdena, 17:30ean. Asier Otamendi, Felipe Zelaieta, Izar Mendiguren, Iñaki Viñaspre, Martin Abarrategi eta Unai Anda Delika arituko dira kantuan.

# Emakumezkoen futbola

hizpide izango dute Urduñan, puntako jokalarari ohien eskutik



Orduña Hirri Museoak hitzordu bikaina prestatu du ostiralean, emakumezkoen futbolaren nondik norakoak ezagutzeko. Horretarako eskarmentu handiko hizlariak eseritiko ditu mahai berean 19:00etan.

Aditu nagusia Eli Ibarra izango da. Gipuzkoarra jatorriz baina Aiaraldeko biztanlea, Ibarrak ibilbide paregabea egin zuen Athleticean. Jokalarari gisa bost Superliga irabazi zituen zurigorriekin eta, horrez gain, klubean partida gehien jokatutako emakumezkoa

da, 413 guztira. 111 gol egin zituen klubarekin. Munduko Txapelketan jokatutako hautatu zuten 2015ean, gainera. Halaber, Athleticeko arlo sozialean lan egiten du Genuine taldearekin, adibidez, eta filialeko ordezkarria da. Ibarrarekin batera, Maitane Sobron Athletic Clubeko jokalarari ohia eta CD Orduñako golegile historikoa, eta Maitane Bardsaldu, CD Orduñako eta Athletic Clubeko kide ohia, egongo dira. Solasaldian Maite Muguruzak ere parte hartuko du.

# Kartelera



LA MILAGROSA  
**A fuego lento**  
OTSAILAK 10  
LARUNBATA (3 euro)

19:00



AMURRIO ANTZOKIA  
**Wonka**  
OTSAILAK 11, 12  
IGANDEA ETA ASTELEHENA  
(5 / 3,75 euro)

19:00



DONIBANE ARETOA  
**Valle de sombras**  
OTSAILAK 11  
IGANDEA (3,5 euro)

19:00



LA MILAGROSA  
**Entre las higueras**  
OTSAILAK 17  
LARUNBATA (3 euro)

19:00

09:00 AMURRIO  
**INAUTERITAKO KONTZERTUA**  
Amurrioko Musika Eskolako ikasleen eskutik  
Amurrio Antzokia

**02.09 Ostirala**  
10:00 LAUDIO  
**LAMUZA IKASTETXEEKO IKASLEEN KALEJIRA**  
Lamuza Eskola

**02.09 Ostirala**  
15:30 LAUDIO  
**LATIOURRO IKASTETXEEKO IKASLEEN KALEJIRA**  
Latioorro Ikastetxea

**02.09 Ostirala**  
15:30 LAUDIO  
**IKASTOLAKO IKASLEEN KALEJIRA**  
Laudio Ikastola

**02.09 Ostirala**  
16:30 OKONDO  
**ESKOLAKO IKASLEEN KALEJIRA**  
Jarraian txokolate jana eta disko-festa frontoian Okondoko Eskola

**02.09 Ostirala**  
08:30 OROZKO  
**OROZKO TALENT Play-back lehiaketa eta txokolate jana**  
Zubiaur Plaza

**02.09 Ostirala**  
09:00 AMURRIO  
**BAKARRIZKETAK**  
Txalo Produktzioaren antzerkia  
Amurrio Antzokia

**02.09 Ostirala**  
20:00 LAUDIO  
**ITXINAPEKO OKELA DASTATZEA**  
Zigor Gorostiaga abeltzainak gidatuta  
Faktoria

**02.10 Larumbata**  
11:00 LAUDIO  
**HAURRENTZAKO TAILERRAK**  
Aldai Plaza

**02.10 Larumbata**  
12:30 AMURRIO  
**ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA**  
Ailara Dantza Taldeak antolatuta  
Juan Urrutia Plaza

**HAURRENTZAKO ESKULAN TAILERRA**  
Toñin Luengas Frontoia

**02.13 Asteartea**  
17:30 URDUNA  
**TXOKOLATE JANA ETA DANTZALDIA**  
Foru Plaza

**02.13 Asteartea**  
18:30 AMURRIO  
**JUDAS KAKARROREN ERREKETA**  
Juan Urrutia Plaza

**02.13 Asteartea**  
19:00 LAUDIO  
**LEZEAGAKO SORGINA ETA GAIZTAKERIAREN ERREKETA**  
Herriko Plaza

IKUSKIZUNAK

**02.11 Igandea**  
17:00 LAUDIO  
**DANTZASKE GORPUTZ IRAULTZAILA**  
Faktoria

**02.11 Igandea**  
17:30 LAUDIO  
**ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETAKO 3. FINALAURDENA**  
Kasinoa

FAMILIA JARDUERAK

**02.18 Igandea**  
17:00 AIARA  
**IGANDE ARRATSALDEAK FAMILIAN: SORGINA TXIRULINA**  
Arespalditzako Udala

BESTELAKO JARDUERAK

**02.18 Igandea**  
10:30 LAUDIO  
**AIARALDEKO MUGIMENDU FEMINISTAREN ASANBLADA IREKIA**  
Faktoria

INFO +  
aiaraldea.eus

# Ortzimuga berria Gorobealeko barrunbeetan



Trebejo ganbarako argazki panoramikoa. **Eneko Garcia de Medinabeitia**

Takomano Espeleologia Taldeak urteak daramatza Gorobel mendilerroko barrunbeak ikertzen. Karstaren esplorazioan mugarri garrantzitsua jarri zuten 2016an, mendilerroko kobazulo handieneko sarrera berria topatu eta 90 kilometroko galeria sistema zela definitu zutenean. Orain koska bat gehiago egin dute gora, espeleo-urpekaritzari esker.



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Duela 85 milioi urte sakone-  
ra txikiko itsaso tropikal batek  
estaltzen zuen Aiaraldea. Itsas-  
hondo horretan sortu ziren ka-  
reharriek Gorobel mendilerroa  
osatzen dute gaur egun. Piri-  
nioak altxatzearekin batera, ur  
tropikalen lasaitasuna utzi eta  
enbata meteorologikoen menpe  
geratu ziren arroak. Gutxika-  
gutxika higatuz eta zulatuz joan  
ziren, egun hain bereizgarria zai-  
gun itxura hartu zuten arte.

Gauzak horrela, milioikoa ur-  
tez luzatu diren prozesu hidro-  
logikoen kobazulo-sare erraldoi  
bat sortu dute gure inguruan,  
eta, nola ez, lurraren historia-  
ren azken katebegian gaudenon

interesa piztu ere bai.

Hain zuzen ere, eskualdeko ba-  
rrunbe horiek guztiak sakonean  
ikertzen igaro du Takomano Es-  
peleologia Taldeak azken ha-  
markada. Aurkikuntza garran-  
tziatsua sinatu dituzte espeleo-  
logiaren arloan, bereziki Pona-  
tako Pagadiko kobazulo-siste-  
man. Berriki koska bat gora egin  
dute ikerketa espeleologikoen ga-  
rapenean, espeleo-urpekaritza-  
ren mundura jauzi eginez.

## Hastapenak

Takomano Espeleologia Tal-  
deak 2010. urtean ekin zion bere  
ibilbideari. Euskal Herriko eta  
Burgoseko espeleologia talde-  
tan aritutako kideak batu eta to-  
kiko eremu karstikoa ikertzeari  
ekin zioten.

“Urte luzez gure zonaldeko es-  
plorazioak hiriguneetako jen-  
deak gauzatu ditu —azaldu dio  
Aiaraldea Komunikabideari  
Carlos Arranz Takomanoko ki-  
deak—, horren aurrean, baliabi-  
de propioekin ingurua ikertze-  
ko beharra ikusi zuten Takoma-  
no sortu zuten espeleologoen”.

“Gorobel mendilerroa eta bere  
ingurunea” hartu zuen hasiera-  
tik Takomano taldeak aztergai.  
Kontzeptu horren barruan ba-  
rrebildu dituzte hidrologikoki  
eremuarekin lotua duten zonal-  
deak ere, hala nola Angulo men-  
datearen inguruko mendiak, Si-  
erra de la Carbonillatik gertu.

Gorobeletik harago ere Oro-  
zko eta Areta arteko Lezeaga ko-  
bazuloan ikerketa eta kanpaina  
garrantzitsuak garatu zituen tal-

**“Espeleologia  
zer da, kirola  
ala zientzia?  
Eta nik uste  
erantzuna dela,  
aritzeko kirola  
ezinbetsekoa  
duen zientzia  
dela”**

deak, bereziki bere jardunaren  
lehenengo urteetan. Bertan hiru  
kilometro baino gehiagoko sarea  
esploratu zuten, eta aztarna ar-  
keologikoak ere topatu zituz-  
ten, katapultak harri-bolak esate-  
rako. Lan nagusia, ordea, Santi-  
ago mendiaren eta Angulo ko-  
portuaren artean garatu dute.

Gaur egun hamabost kidek  
osatzen dute Takomano ET.  
“Gure profila, oro har, ez da zien-  
tifikoa, ez gatoz arlo horietatik.  
Profil langileagoa dugu taldean.  
Baina espeleologiari esker zien-  
tziako adar desberdinetan mur-  
giltzeko gaitasuna garatu dugu”,  
nabarmendu du Arranzek.

## Zientzia ala kirola?

Antzinako grezierazko *Igoia*  
atzizkiak, espeleologia arlo edo

## erreportajea

ikerketan zientifiko batekin lotzera garamatza. Honen praktikak, ordea, asko du kirolekin. Orduan, zer da espeleologia?

“Espeleologiaren hastapenetatik datorren eztabaida da hori: Zer da, kirola ala zientzia? Eta nik uste erantzuna dela, aritzeko kirola ezinbestekoa duen zientzia dela”, argitu du Carlos Arranzek.

Ikerketan zientifikoak du ardatz espeleologiak. Karsta eta bere barruan dagoen guztia du azteragi, fenomeno endokarsitikoak zein exokarsitikoak. Hartara, zientzia multidiziplinarra da: geologia, paleontologia, biologia, hidrologia... barnebiltzen dituena.

Haugaratu ahalizateko, baina, kirola ezinbesteko praktika izan ohi da. “Kobazuloak ikertzeko kobazuloetara joan beharra dago; ez da posible beste modu batean egitea. Espeleologia bakarrik garatu daiteke espeleologia egiten; ez dago makinarik, ez robotik...”

**“Kobazuloak ikertzeko kobazuloetara joan beharra dago; ez da posible beste modu batean egitea. Espeleologia bakarrik garatu daiteke espeleologia egiten; ez dago makinarik, ez robotik... pertsonak joan behar du”**



# erreportajea

pertsonak joan behar du. Esplo-  
ratzeko eta ikertzeko bertara joan  
behar duzu. Medio berezia da gai-  
nera: iluna da, urrun dago, arris-  
ku batzuk daude...”, argitu du  
Takomanoko kideak.


**Gorobeiko  
kareharri  
geruzak duela  
89 eta 85  
milioi urte  
artean sortu  
ziren, Kretazeo  
Berantiarreko  
Coniaciarrean.  
Garai horretan  
sakonera txikiko  
itsaso tropikal  
epel batek  
estaltzen zuen  
Aiaraldea**

Kirola ikerketa zientifikorako  
tresna baino ez da. Mendiko ki-  
roletako joeraren kontra, espe-  
leologoek beti bilatzen dute bide-  
rik errazena puntu batera iriste-  
ko. “Espeleologian ez du zentsurik  
bide zailagoak edo teknikoagoak  
bilatzea, kontrakoa baizik, horrek  
bereizten du kirol praktikatik”.

Bada espeleologia kirol  
praktikatik are gehiago bereizten  
duen beste elementu bat, zientzia  
orok duen xede berdina: aurkitu-  
tako publikatzearen beharra.  
“Espeleologiaren helburua ikert-  
zea, dokumentatzea eta publikat-  
zea da. Eta hori egiteko prozedura  
on eta sistematizatu bat jarraitzea  
ezinbestekoa zaigu — nabarmen-  
du du Arranzek—. Publikatzen ez  
baduzu ez da zientzia. Zein da ar-  
keologo baten eta hilboi-lapur ba-  
ten arteko diferentzia?”

Espeleologia eta *espeleoturismoa*  
ere bereiztu ditu Takomanoko ki-  
deak: “Jende asko dago kobazu-  
loetara doana, *espeleo* egiteko ma-  
teriala duena. Ikuspuntu deporti-  
botik, estetikitik, edota ludikitik  
egiten dute. Guk horri *espeleoturis-  
mo* deitu izan dugu”.

Zientzia eta kirolaren arte-  
ko oreka horretan, kolektibo



Ezkerretik eskumara: Espeleologoak Rebollar kobazuloan. / Ur korranteek morfologia anitzak sortzen

txikia da, oro har, espeleologia  
praktikatzen duena. Euskal He-  
rriko taldeak Euskal Espeleolo-  
goen Elkartearen inguruan dau-  
de bilduta, eta berrehun kide in-  
guru dira orotara.

#### Taldearen garrantzia

Espeleologia jarduera kolekti-  
boa da ehuneko ehunean. Ho-  
rrek taldeen beharra dakar, eta,  
ondorioz, oso talde-harreman  
estuak sortzen dira. “Nahiko tri-  
bu-zaleak gara, eta askotan lehia  
sortzen da beste espeleologia tal-  
deekin. Hermetikoeziak gara eta  
hori ez da positiboa izaten iker-  
keten emaitzak elkar banatzeko  
orduan”.

**“Etxe inguruan  
daukaguna  
espeleologia  
egiteko  
paradisu bat da.  
Agian gehiegi  
esatea da, baina  
eskalatzaile  
izatea eta  
Chamonixen  
bizitzea  
bezalakoa da  
hau”**

Historikoki talde bakoitzak  
bere ikerketa eremua izan du.  
Ohikoan mendilerro edo eremu  
hidrologiko batekin zetorren bat  
eremu hori, beste askotan muga  
administratiboek markatzen dute  
espeleologia taldeen jardun-esp-  
arrua; azken hori ez da Takoma-  
noren kasua: “Guk, adibidez, ez dit-  
gu muga administratiboak erres-  
petatzen, bestela ezingo genuke  
Gorobel ikertu; guri berdin zaig-  
u Araban, Bizkaian edo Burgo-  
sen egotea”.

Arestian aipatu bezala, Tako-  
manoko kideak ez datoz zientzia-  
ren mundo akademikitik, baina  
urteetako jardunak ikerketak ga-  
ratu ahal izateko formazioa eta

ezagutza eskaini dizkie. Hain zu-  
zen ere, ikergai duten zonaldeak  
definitzen du espeleologia talde  
baten nolakotasuna. “Espelolo-  
goak espezializatuz doaz ikertzen  
ari diren karstak argitara aterat-  
zen dituen kontuen arabera —  
adierazi du Arranzek—, horrek  
ere definituko du espeleologo-  
en trebezia, zonalde batean kobazu-  
loak oso lauak badira, ziurrenik  
bertan ikertzen duten espeleolo-  
goek ez dute bertikaletan aritu be-  
harrik izango”.

#### Gorobel, altxor ezkutua

Hain zuzen ere, Takomanoren  
ikerketen erdigune den Gorobel  
mendilerroa “espeleologiaren al-

## erreportajea



k sortzen dituzte. **Takomno E.T. / Iñaki Latasa (GAES)**

txor” definitu du Carlos Arranzek. Burua zertxobait gehiago altxatuta, Euskal Herriak eta honen aldiriek espeleologian aritzeko kilometro eta kilometroak eskaintzen dituzte: Itxinako sistematik hasita, Larrako karstera edota Kantabria inguruko kobazuloetaraino. “Etxe inguruan daukaguna espeleologia egiteko paradisu bat da. Agian gehiegi esatea da, baina eskalatzaile izatea eta Chamonixen bizitzea bezalakoa da hau”, adierazi du Arranzek.

Gorobeiko kareharri geruzak duela 89 eta 85 milioi urte artean sortuziren, Kretazeo Berantiarreko Coniaciarrean. Garai horretan sakonera txikiko itsaso tropikal



Gorobeiko kobazuloetan dimentsio ahdiko kamarak dadude. **Josu Senderos**

# erreportajea



Espeleologoak Gorobelen. Iñaki Latasa (GAES) / Takomano T.E.

Takomanoko kideak espeleo-urpekaritza egiten. Takomano T.E.

## erreportajea



## Arabako GEA eta Burgoseko Edelweiss espelelologia taldeek esplorazio ugari egin zituzten 1980 eta 1990eko hamarkadetan Ponatako Pagadiko kobazuloetan

epel batek estaltzen zuen Iberiako eta Eurasiako plaken arteko tartea. Bi plaka horien arteko talkak (Alpetar orogeniak) Piriñoak altxatu zituen, eta horrela aireratu ziren Gorobel osatzen duten arroak.

Prozesu tektonikoak, oro har, gutxi deformatu zituen mendilerroko kareharri geruzak, hots, kareharria metatu zen bezala azaleratu zen. Horrek morfologia bereizgarria eskaini zion inguruari: “Gorobelesko karsta, liburu bateko karsta bezalakoa da”, definitu du Carlos Arranzek. “Morfologia oso klastikoa da, oso anguloso da. Ekialdetik mendebladera hedatzen diren bolumen eta galeria oso handiak daude. Estalagmita eta estalaktita gutxi daude, badaude batzuk baina ez da bereizgarriena”.

Hain karst interesgarriak toki-ko zein atzerriko ikerlari askoren arreta bereganatu du urte luzez, eta kobazulo-sistema oso luze bat definitzea lortu dute.

### Ponatako Pagadia

Hirurehun kobazulo baino gehiago daude identifikatuta Gorobelen, baina guztien artean garrantzitsuen Ponatako Pagadiko sistema da, mendilerroa alderik alde zulatzen duen barrunbe erraldoia.

Arabako GEA eta Burgoseko Edelweiss espelelologia taldeek esplorazio ugari egin zituzten 1980 eta 1990eko hamarkadetan. Ikerketa horietan murgilduta egin zuten topo Gorobelesko kobazulorik handienarekin: Ponatako Pagadiko Sistema. Tologorritik Angulo mendateriano doan sare erraldoia da, euskal espeleologiaren erreferentea.

XX. mende amaierako kanpainen 50 kilometroko sarea definitu zuten, baina denborarekin taldeak ahuldu eta ikerketa geldirik geratu zen.

Bi taldeek egindako lanari jarraipena eman eta esplorazioari berri ekin nahian, Takomano Espeleologia Taldeak egundoko ahalegina egin zuen 2015. urtetik aurrera, Angulo mendate inguruan kobazuloaren sarrera berri bat aurkitzeko asmoz.

Esfortsu askoren ostean, 2016an topatu zuten El Rebollos II kobazuloa, Ponatako sistemako mendebaldeko sarrera. “Sarrera berri horrek dimentsio berria eman zion kobazulo sarearen esplorazioari. Ordura arte denbora asko inbertitu behar zen Ponatako sarreretatik kobazuloaren beste muturrera iristeko, oso baldintza tutazegoen ikerketa: hamar orduko ibilaldiak, vivac-ak... Sarrera berri hori lortu zuen Takomano taldeak, eta, hortik, emozioz beteriko ikerketa lerroa abiatu zen”, goraipatu du Carlos Arranzek.

Gaur gaurkoz 90 kilometro inguruko sarea kartografiatu dute Ponatako Pagadiko Sistemaren barruan, baina oraindik lan asko dago egiteko. Carlos Arranzek iritzi, talde espeleologiko desberdinen arteko elkarlana eta kolaborazioa funtsezkoa izan behar da ikerketan aurrera egiteko: “Egin ahal duguna baino lan gehiago daukagu esku artean”.

### Espelo-urpekaritza

Ikerketa luze eta zabal horri aurre egiteko, teknikoki koska bat igo eta ortzimuga berri batera iristea da berriki Takomano taldea: es-

pele-urpekaritza. Mendiko Lagunak Taldeak eskainitako ML Bekara aurkeztu eta kideetako bat teknika horretan formatzea lortu dute berriki. Carlos Arranz kideak jaso zuen, hain zuzen ere, kobazuloetako putzu eta sifoieta murgiltzeko formazioa: “Kanpotik jende asko etortzen zen gurea bertako kobazuloak ikertzeko, eta gu ez ginen horretarako kapazak. Ezin genituen sifoiak gurutatu eta galeria berriak ikertu”.

**“Espeleourpekaritza beste mundu batean sartzea bezalakoa da... Medio ilun eta arrotz batean sartzen zara, buruak desberdin funtzionatzen du”**

Espeleologia taldeak esku artean zuen ikerketa zehatz batean aurrera egiteko jaso zuen Takomano kideak urpekaritzarako formazioa: Quincoces de Yuso eta Reloso herrien artean Sistema Fuente Suso kobazuloak Gorobelesko sistemekin duen harremana ikertzea. Espeleourpekaritzari esker, progresioa galarazten zuen sifoi bat zeharkatzeko gai izan dira.

“Espeleourpekaritza beste mundu batean arzte bezalakoa da... Medio ilun eta arrotz batean sartzen zara, buruak desberdin funtzionatzen du. *Stargate* pelikulan bezalakoa da, sifoiaren bestaldera gurutzatzerakoan bakarrik zaude, atzera egiteko bide bakarra dago... beste dimentsio bat hartzen du”.

Taldeari leku berrietara iristeko bidea eman dio espelo-urpekaritzak. Izan ere, Gorobelesko badu praktika hau garatzeko potentziala. Ponatako Pagadiko Sistemako muturretako batean, esaterako, sifoi sakon batzuk badaude, bere garaian Jason Mallison espelo-urpekaritari britaniar ezagunak zeharkatu zituenak. “Ez gara karibeko zenoteetaz ari, leku ilun eta uherretaz baizik”.

# kultura

## Burbuilak taldeak bere lehen diskoa argitaratu du



Burbuilak taldeko kideak, Faktorian eskainitako kontzertuan. [Aiaraldea.eus](#)

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Burbuilak taldeak dozena bat abesti argitaratu ditu YouTube plataforman. Diskoa hemen entzun daiteke eta bederatzi kanta propio eta hiru bertsiorekin osatu dute. Taldeko kideek ez dute baztertu plataforma gehiagotan partekatzea, baina ez dute euskarri fisikorik (CD edo biniloa) erabiliko.

Zuzeneko emanaldiei dago kienez, musikarien asmoa da otsailaren 23an entsegu irekia egitea Faktorian, eta martxoaren lehen aurkezpen ofiziala burutzea Amurrio Antzokian. Azken emanaldi horretarako hainbat musikari eta dantzari batuko zaizkie, giro berezia sortu nahi dutelako.

Gonbidatu dituzten sortzaileen artean egongo dira Patas de Gansa dantza garaikide taldea, Iratxe Gorostizaga eta Garazi Abrisketa Uluka taldeko kide ohiak, Txema Isasi perkusionista, Izaro Otaegi dantzaria eta Jone Urruela bibolinjolea.

Taldeak uste du hitzordu egokiena izango dela euren musika zuzenean gozatzeko. Gainera, aurreratu dute kanta berriak ere joko dituztela, diskoa urrian ekin baitzioten grabatzeari Ander Tejerina ekoizlearekin, eta ordutik hona ez dute etenik izan.

**2022tik abian**

Burbuilak 2022ko urtarriean sortu zen, nolabait, Irati Mendiguren Cosgaya eta Izaskun del Cerro elkartzeko hasi zirenean. "Sortzeko premia genuen biok. Hasieran bertsiok jotzen genituen eta gero ekin genion gure ideiak lantzeari. Orduan elkartu zen Izar", argitu du Irati Mendigurenek.

**Bertsioak**

Arestian aipatu bezala, taldeak hiru bertsiok propio plazaratu ditu: *Morez*, *Zein polita* eta *Ate bioleta*.

Morez kanta Uluka taldearena da eta Izar eta Irati Mendiguren Cosgayak parte hartu zuten proiektu horretan. Burbuilak grabaketan beste bi taldekideak —Garazi Abrisketa eta Iratxe Gorostizaga— ere aritu ziren.

*Zein Polit*a eta *Ate bioleta* kanten kasuak, ordea, bestelakoak izan dira. Rosario Flores eta Rozalen abeslarien lanak dira eta Burbuilakeko kideentzat erronka izan zen euskaratzea. "Rosario Floren abestia beste testuinguru sozial batean entzun genuen eta asko gustatu zitzaigun. Bai hori zein Ate bioleta gai dira gu barrutik mugitzeko. Horregatik erabaki genuen euskarara ekartzea eta oso pozik gaude emaitzarekin".

## Asteburuan estreinatu dute Amurrioren grabatutako *Deviant* filma



Daniel M. Cenicero zuzendaria, Alain Hernandez aktorea eta Kevin Iglesias *Deviant* filmaren grabaketan. [Aiaraldea.eus](#)

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Iragan asteburuan Amurrio Antzokira heldu zen 2023ko martxoan udalerrian bertan grabatutako *Deviant* filma. Kevin Iglesias amurriarra izan da pelikularen ekoizlea eta zuzendari lanetan, aldiz, Daniel Muñoz Cenicero aritu da.

Amurrioko hainbat kokalekutan grabatu zuten filma, nagusiki Villa Fe eta Isusi familiaren jaure-

gietan. Herriko beste hainbat txoko ere agertuko dira zintan, merkatu zaharra eta Cola de Gallo taberna ezaguna tartean.

*Deviant* tekigizonezko ezkondu baten istorioa du hizpide. Protagonistak zitak lortzeko aplikazio baten bidez emakume gazte batekin jarriko da harremanetan eta horrek bere etxera erakarriko du. Neska-aren etxera iristean, ordea, honen aitagizonezko ahalegin-dukua da, alabak pairatutako abusuengatik mendeku hartu nahian.

Filmak komedia eta thrillerra uztartzen ditu.

Hiru emanaldirekin estreinatu zuten filma asteburuan Amurrio Antzokian. Lehenengo pasea otsailaren 2an eskaini zuten, eta, gonbitea luzatu zieten udalerriko zenbait bizilagunei. Bertan, Daniel M. Cenicero zuzendariak zine-foruma eskaini zuen, Luis Vilek gidatua.

Igandean eta astelehenean, ohiko zinema orduetan eskaini zituzten gainerako bi paseak.

## Cuatro Bancos taldea Viñarock jaialdiko aurtengo edizioan jotzeko lehiaketan parte hartzen ari da

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Cuatro Bancos Amurrioko musika taldeak aukera guztiak ditu Viñarock jaialdiak abian duen lehiaketako hurrengo fasera igarotzeko. Izan ere, antolatzaileek bigarren aldiz deitu dute lehiaketa talde berriak kartelean txertatzeko eta amurriarrak hamabosgarrenak dira 508 bozekin. Oraindik bozkatzeko aukera dago.

Bozka gehien jasotzen dituzten lehenengo hogeitau hamarren fasera igaro eta epaimahairen men-

de geratuko dira. Adituek bi hautatuko dituzte oholtzara igo daitezkeen aurtengo Viñarocken, 30 minutuko kontzertua eskaintzeko. bostehun euro ordainduko dizkie antolakuntzak eta bi gonbidapen ere izango ditu taldekide bakoitzak.

Horrez gain, Villarobledoko jaietan ere emanaldia izango dute irabazleek eta bostehun euro jasoko lituzkete zuzeneko horren truke.

Jaialdia maiatzaren 2tik 4ra bitartean izango da Villarobledon eta Lendakaris Muertos, Sociedad Alkoholika, The Baboon Show, Zea Mays,

Green Valley edota Sho Hai taldeek joko dute, adibidez.

Cuatro Bancoseko kideek azaldu dute Viñarock jaialdian jotzea ametsa betetzea izango litzatekela eurentzat: "Nolabaiteko bultzada izango genukeela uste dugu, eta, batez ere, guretzat musika talde handiekin oholtza partekatzea ohore bat delako".

Talde amurriarra bost gaztekin osatzen dute eta hip hop musika dute ardatz, bestelako generoekin uztartuta —rock edo metal, adibidez—. Jadanik bi EP argitaratu dituzte eta laster abesti berriak zabaltzea espero dute.



**babestutako edukia**

# NEGUVA

## FAKTORIAN

OTSAILA



**09, barikua**  
20:00 · Faktorian  
PLAZA EGUNA/  
**ITXINAPEKO OKELAREN DASTAKETA**  
BAZKIDEEK 5€ / EZ-BAZKIDEEK 6€

#ELIKADURABURUJABETZA  
#ABELTZAINZA



**12, astelehena**  
11:00-13:00 · Faktorian  
**INAUTERI LUDOTEKA**  
BAZKIDEEK DOAN / EZ-BAZKIDEEK 3€

#INAUTERIAK  
#FAMILIA



**12, astelehena**  
18:00 · Faktorian  
**AMALURRA ESNATZEKO IPUIN KONTALARITZA MUSIKATUA**  
DOAN

#IKUSKIZUNA  
#FAMILIA



**16, barikua**  
20:00 · Faktorian  
**TAROTEAN MURGITZEN**  
MATXALEN ALDAITURRIAGAREKIN SOLASALDIA  
DOAN

#KOMUNITATEA  
#EZAGUTZA



**17, zapatua**  
17:00-20:00 · Faktorian  
DANTZASKE/  
**GORPUTZ ZIKLIKOIA TAILERRA**  
BAZKIDEEK 30€ / EZ-BAZKIDEEK 32€

#PLAZERRA  
#GORPUTZIRAUZTAILEAK



**18, domeka**  
11:00-13:00 · Faktorian  
**0-3 URTE ESPAZIO LIBREA**  
BAZKIDEEK 5€ / EZ-BAZKIDEEK 7€

#HAZKUNTZA



**23, domeka**  
20:00 · Faktorian  
ENTSEGU IREKIA/  
**BURBUILAK**  
ESKUALDEKO EMAKUME EZBERDINEN KOLABORAZIOAREKIN  
DOAN

#MUSIKA



**24, zapatua**  
22:00 · Faktorian  
KONTZERTUA/  
**ASSATA ROCKA ETA FUNKA!**  
BAZKIDEEK 6€ / EZ-BAZKIDEEK 8€

#MUSIKA



**25, domeka**  
17:30-19:00 · Faktorian  
**ZIRKOA FAMILIAN AKROBAZIA** ATELIERRA  
BAZKIDEEK 2-3 KIDEKO FAMILIA 40€ (5€ KIDE GEHIGARRIA) / EZ-BAZKIDEEK 45€ (7€ KIDE GEHIGARRIA)

#ZIRKOA



**10, domeka**  
11:00-13:00 · Faktorian  
**0-3 URTE ESPAZIO LIBREA**  
BAZKIDEEK 5€ / EZ-BAZKIDEEK 7€

#HAZKUNTZA



**10, domeka**  
17:00 · Faktorian  
DANTZASKE/  
**GORPUTZA POLARIZATUA SOLASALDIA**  
BORONDATEA

#PLAZERRA  
#GORPUTZIRAUZTAILEAK



**15, barikua**  
19:00 · Faktorian  
**FAKTORIATXIKI GAUA HAURENTZAKO GAU-EGONALDIA**  
DOAN

#HAZKUNTZA  
#HAURENAKTORIA



**16, zapatua**  
17:00 · Faktorian  
DANTZASKE/  
**GORPUTZA POLARIZATUA TAILERRA**  
BAZKIDEEK 30€ / EZ-BAZKIDEEK 32€

#PLAZERRA  
#GORPUTZIRAUZTAILEAK



**17, domeka**  
17:30-19:00 · Faktorian  
**ZIRKOA FAMILIAN AKROBAZIA** ATELIERRA  
BAZKIDEEK 2-3 KIDEKO FAMILIA 40€ (5€ KIDE GEHIGARRIA) / EZ-BAZKIDEEK 45€ (7€ KIDE GEHIGARRIA)

#ZIRKOA



**22, barikua**  
**KORRIKA AIARALDEAN! HARRO HERRI AIARALDEA!**

#EUSKARIA



**23, zapatua**  
22:00 · Faktorian  
KONTZERTUA/  
**ITHAKA**  
BAZKIDEEK 8€ / EZ-BAZKIDEEK 10€

#MUSIKA

## MARTXOA



**01, barikua**  
20:00 · Faktorian  
PLAZA EGUNA/  
**HABITATUTAKO PABILIOI BAT**  
BEÑAT SARATXAGA ARKITEKTOAREKIN SOLASEAN  
DOAN

#ARKITEKTURA



**02, zapatua**  
17:00-19:30 · Faktorian  
**MAHAI JOLASEN TOPAKETA**  
GAZTE-GAZTEENTZAT  
DOAN

#GAZTEGAZTEAK  
#JOLASAK




**03, domeka**  
17:30-19:00 · Faktorian  
**ZIRKOA FAMILIAN AKROBAZIA** ATELIERRA  
BAZKIDEEK 2-3 KIDEKO FAMILIA 40€ (5€ KIDE GEHIGARRIA) / EZ-BAZKIDEEK 45€ (7€ KIDE GEHIGARRIA)

#ZIRKOA



**08, barikua**  
**EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA.**  
GORA MARTXOAK 8!

#FEMINISMOA



AIARALDEA EKINTZEN  
**FAKTORIA**

# kultura

**“Nire koadroekin Orozkon leku pribilegiatuak ditugula islatu nahi izan dut”**

**AITOR INTXAURRAGA** (Orozko, 1961) MARGOLARIAK IAZ ERAKUSKETA PRESTATU ZUEN HERRIKO MUSEOAN ETA ARRAKASTATSUA IZAN ZEN. BERE LANARI ETA IBILBIDEARI BURUZ MINTZATU DA.



Testua eta argazkiak  
**Aitor Aspuru Saez**

**Lau urtaroak islatu zenituen abenduan ikusgai izan zenuen erakusketan Orozkon, zein izan zen filosofia?**

Proiektuaren muina izan da nik egindako Gaztainondoan Bidean ikusitako koloreak islatzea. Han daude lauhun urteko gaztainondoak eta eskulturak dirudite. Izugarriak dira, zur eta lur utzi ninduten eta handik aurrera hasi nintzen lanean.

**Lau urtaro izanda, nola margotu dituzu?**

Batzuk tokian bertan egin nituen. Oro har, estudioan amaitzen ditut, baina bat ez nuen ezta ikutu, geratu zen moduan utzi nuen. Dena den, prozesua luzeagoa da koadro handiekin, estudio lan exijentea behar dute.

**Koadro handiekin zein da prozesua?**

Lehenik eta behin, tokian bertan ohar batzuk hartzen ditut, ihes puntuak lantzeko, adibidez. Paisaiaren irudi bat egiten dut buruan eta gero elementu batzuk kendu, beste batzuk kokatu, jarri...

Guztira 24 koadro sortu nituen eta Orozko Museoan erakutsi nituen. Bi gai nagusi daude, eta biak Iba-

rratik gora kokatzen dira: Gaztainondoan Bidea eta Gorbeia Bidea.

Ibilbideak eta paisaiak gogoko nituen, buruan nituen eta ikusarazi nahi nuen nola aldatzen diren udatik negura, udazkenean... Leku hau pribilegiatua da eta hori balioan jarri nahi nuen. Pribilejituak gara.

**Erakusketak harrera oso ona izan du.**

Bai, pozik nago. Jendea joan zen eta onarpen handia izan zuen. Astebetez luzatu nuen eta koadro gehienak saldu egin ditut.

**Oro har, jendearen iritzia zein izan da?**

Hasteko, aintzat hartu beharra dago lehen ez nuela horrela margotzen. Margotzea prozesua da. Orain horrela margotzen dut eta hurrengo urtean ez dakit nola egingo dudana. Jendeak esaten zidan lehen ez nituela horrelako koadroak egiten.

Prozesua, berez, zuk zure buruarekin eta inguratzen zaituenarekin duzun harremanaren arabera da. Nola zaren une horretan...

**Jendeak esaten zizunean lehen ez zenuela horrela margotzen, baten lehen baserriak margotzen zenuelako?**

Bai, asko Orozkon, baina Frantzian ere ibili naiz.

Galeria askotan egin ditut erakusketak eta kasu horietan askotan koadroak Frantziakoak ziren; Mont de Saint Michel, La Rochelle...

Dena den, orain Orozkon eta hemengo proiektuetan nago zentratuta. Jendeak ikusi zuen lana zegoela atzean eta aitortu du.

**Proiektu berriak dituzu buruan?**

Bai, baina proiektuak landu behar dira eta ez dut konpromisorik hartu nahi proiektuaren %80 egin arte. Orain arte uztartu ditut lantegiko beharra eta margotzea, baina aurretik erretiroa hartu dut eta orain zentratuta nago honetan. Ilusionatuta nago.

**Noiz hasi zinen margotzen?**

Juan Bayon Salado *Bay Sala* gure bizilaguna zelarik hasi nintzen. Bera Parisetik etorri zen eta Estatu espainiarreko margolaririk onenak bisitatzen zuten; Martinez Diazek, Garraldak...

Nik ikusten nituen eta gogoko nuen. Berak ematen zizkidan margoak eta horrela hasi nintzen. Gero estudioan lan egiten ikasi nuen. Musikan solfeoa dena, margotzean estudioa da. Ikasi nuen Erreproduktzio Museoan, Manuel Balsarekin eta gero bakoitzak bere bidea landu behar du. Horretan nabil.

Laudion egin ditut erakusketa pilo, 18 urterekin

hasi nintzen. Gero Bay Salaren galerietan, txikian, eta beranduago handiagoan, saltzen nuen eta. Bilbon egin ditut erakusketa ugari, eta Madrilen beste bi, baina denbora behar da horretarako eta ni lanean nengoen fabrikari. Hara jo behar duzu koadroekin, inaugurazioan egon... Lan handia da. Madrillgoari uko egin nion.

**Nolako izan zen Bay Sala ezagutzea eta bohemian mundu horrekin harremana izatea?**

Zaila zen. Aintzat hartu baserrietan ez zegoela artea ikasteko kultura. Nekez lortu nuen hori onartzea, baina ondo. Gero pozik ibili naiz.

**Beti mugitu zara zure kabuz?**

Lagunak egin ditut galerietan eta partekatzea ondo dago. Beti ikasten duzu eta besteek ideia onak dituzte. Margolari onetatik beti ikasten da.

Horri nik deitzen diot "pintzelik gabeko pintura". Izan ere, maiz margotu gabe margotzen ari naiz nire buruan. Bay Salak berak esaten zidan, jendearekin zegoela hitz egiten, baina zuhaitz bati erreparatu eta bururatzen zitzaion egiten ari zen koadro batean zuhaitz hori sartu behar zuela.

Hori sano inportantea da. Lagunekin hitz egiten asko egiten da. Adibidez, Bay Salak erakusketa egiten zuen hemen eta Manuel De Gracia etortzen zen Madriletik. Euren artean zuzentzen zituzten lanak. Besteek ikusten dute zuk ez duzuna ikusten zure koa-

**“Bay Salak babes izaugarria eman zidan eta aitari esaten zion gaitasunak ikusten zizkidala”**

droetan. Garaiko margolari espainiar onenak elkar-tzen ziren hemen.

**Orain Bay Salak zer esango luke zure lanari buruz, aukera izango balu horretarako?**

Berak eman zidan pintzelak gordetzeko erabiltzen zuen potea. Hemen daukat sinatuta, baita bere pintzelak ere.

Niri eman zidan babes izugarria. Etortzen zen etxera eta aitari esaten zion gaitasunak ikusten zizkidala. Bidea erraztu zidan. Museoan ikasteko berak proposatu zidan.

**Nolako da lantegiko lana eta margoak uztartzea?**

Bide zaila izan da, baina nik hautatu dut. Margolari gehienek gose handia igaro dute. Picassok berak Parisen. Ez zen joan eta izarra bilakatu, baina arte-merkatari batek lagundu zuen eta oso margolari ona izan zen.

Margolari onenak hemen eskaleak izango lirateke. Van Goghek koadro bakarra saldu zuen, bere lehen-gusu bati. Orain berpiztuko balu esango luke, "guztiok aprobetxatu zarete, ni ezik".

Horrelakoa da artearen mundua.

**Zein neurrian da zure ingurua, baserria, Orozko... zure inspirazioa?**

Laudio ere izan da. Baserri ugari margotu ditut. Nire hurrengo proiektua Orozkon izatea gura nuke.



# kirola

KARATEA

## Karateko gerriko beltza lortzeko probak egingo dituzte Laudion lehenengo aldiz otsailaren 17an



Araba Karate Klubeko kideak. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Araba Karate Klubean egingo dituzte lehenengo aldiz gerriko beltza eskuratzeko azterketak otsailaren 17an, 9:00etan. Angel Daza hirugarren mailako entrenatzailea eta Graduen Epaimahaiko Epaile tituluduna denez, probak Laudion bertan deitu ditu 30 karateka baino gehiagorentzat.

Hitzordu berezia izango da arrazoi anitz dela eta. Haste-ko, lehenengo aldiz deitu dute azterketa udalerrian eta zortzi laudioarrek eman dute izena. Lehen Dana lortzeko lanetan Nuria Baños, Amaia Gordon, Eduardo Lopez, Aimar Gar-

zon eta Harriet Artaraz arituko dira. Bigarren Daneko gerriko beltza janzteko eskubi-dea bereganatu nahian, aldiz, Eva Conejero, Ander Palacin eta Fernando Urquijo arituko dira.

Gainera, emakume batek EAeko epaimahai baten osaketan parte hartuko duen lehenengo aldia izango da. Naroa Lezkano Ying-Yang klub gasteiztarreko kidea arituko da zeregin horretan. Azterketa luzeak izango dira, eta parte hartzaileek, zenbait eraso eta defentsa teknika menperatzen dituztela erakustez gain, azterketa teorikoa gaingitu eta aurkari batekin borrokatu beharko dira.

ATLETISMOA

## Artziniegako Krosaren I. edizioak eskualdeko gazte ugari erakarri zituen



Eguraldia lagun, ehunka korrikalari batu ziren Artziniegan. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Urtarrilaren 28an egin zuten Artziniegako Krosaren I. edizioa. Herriko umek eta gazteek ez ezik, inguruko herrietako ki-

rolariek ere eman zuten izena proban, eguraldi eguzkitsua baliatuta, 200 parte hartzaile baino gehiagok. Amurrioko Oinkariak Atletismo taldearen laguntza izan dute lehenengo edizioan.

ZIKLO-KROSA

## Hodei Muñoz pozik dago Munduko Ziklokros Txapelketan izandako emaitzarekin



Hodei Muñoz Amurrion jokaturako Espainiako Ziklo-kros txapelketan, garaile. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Igandean lehiatu zen Hodei Muñoz Munduko Ziklo-kros Txapelketan. Tabor hiri txekiarrean izan zen proba eta marka ona lortzeko asmoarekin bertaratu zen aiarrara. "Oso denboraldi ona egin ostean, munduko txapelketa ona eginda bukatu nahi nuen", adierazi du kirolari gazteak.

Azkenean, 29. zeharkatu zuen helmuga eta balorazioa positiboa izan da. Marka hori lortzeko, lehen uneetan galdutako denbora berreskuratzea behar izan zuen, hainbat txirrindulari gaingiduta.

Izan ere, hasieran zorte txarrarekin topo egin zuen luiaondoarrak eta, anabasaran ondorioz, ia 50. amaitu zuen lehen itzulia. "Uste dut lehen itzulian izan nuen kao-

**Lehen itzuli oso kaotikoa izan zuen Muñozek eta hainbat txirrindulari aurreratu behar izan zituen 29. heltzeko helmugara**

saren eta egin nuen itzulera ostean, gusturago egon nintekeela". Hori guztia aintzat hartuta, inoizko Munduko Txapelketarik bereziarena izan duela adierazi du.

Euskal txirrindularitzak erakutsitako mailari buruz galdetuta, Muñozek honakoa erantzun du: "Nahiko ondo egin genuela uste dut. Hiru euskaldun joan ginen eta denok asetuta bukatu dugu. Horietako batek —Unax Galanek— ere lehen itzuli txarra egin zuen, ni baino atzerago geratu zen eta min handia egin zion. Irati nahiko ondo ateratu zen eta gainera oso pozik zegoen". Denboraldi gogorra izan du Muñozek, auto batek harrapatu baitzuen udan, baina, hala ere, kirol emaitza oso onak izan ditu, bai errepidean zein ziklo-krosean.

# herriko plaza

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Otsailaren 2lean argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.



## Unai

Hari luze bat idatzi dute Twitterren zu zoriontzeko, gero pasako dizut esteka!

Diagon Alley



**BIDALI  
ZURE  
ZORION  
AGURRA!**

## Denborapasak

ZAILA

|   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   | 2 |   |   |   |   | 8 |   |
|   |   |   | 5 |   | 2 | 7 | 3 |
|   | 5 |   |   | 6 |   | 4 |   |
|   |   | 4 |   |   |   | 3 | 6 |
| 5 | 7 | 8 |   |   |   | 9 |   |
| 6 | 9 |   |   | 2 | 8 | 4 |   |
| 8 |   |   |   |   | 7 | 2 |   |
|   |   |   | 2 |   | 3 | 6 | 5 |
|   | 6 |   |   |   |   | 3 |   |

ERRAZA

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   | 3 |   | 7 |   |   |   | 6 |   |
| 4 |   |   |   |   | 9 |   | 8 | 3 |
|   | 7 |   |   | 2 | 3 |   |   | 5 |
| 6 |   |   | 4 |   |   |   |   |   |
|   | 5 |   |   |   | 2 | 6 |   | 7 |
|   |   | 4 | 3 |   | 5 |   |   |   |
|   | 6 |   | 8 |   | 4 | 5 | 3 |   |
|   |   | 3 | 2 | 5 |   |   |   |   |
| 5 | 4 |   |   | 3 | 7 |   |   | 9 |

**DENBORAPASEN SOLUZIOAK** Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>

## Zozketa



**Kuttune taldearen  
Zer ote da? diskoa  
zozkatuko du Aiaraldea  
Komunikabideak**

**Kuttune taldearen Zer ote da? diskoaren zozketa baten zozketa**

**Parte hartzeko** sartu [www.aiaraldea.eus](http://www.aiaraldea.eus) atarian **Zozketaren data:** Otsailak 16, 15:00etan.

## IRAKURKETA GUNEA

### XIMUNEN BARATZEA

**Idazlea:** Rocio Alejandro

**Argitaletxea:** Pamiela

Baratzea dauka Ximunek, baina solilik aznarioak ereitzen ditu. Azenarioak erein eta erein dabil. Azenario askorekin dago eta norbaitek iradokitzen dio beste zerbait ere landatu dezakeela.



### XIVAREN MALKOAK

**Idazlea:** Cesar Mallorqui

**Argitaletxea:** Giltza

**Adina:** 12 urtetatik gora

Beldurrezko istorio baten aurrean zaudela usteko duzu baina ez. Espektro bat, mamu bat agertu zitzaion. Justu gizakia ilargiar heldu zen egunean ikusi zuen espiritua... Hortik aurrera abentura eta misterio handiko eleberria aurkezten digu idazleak.




## JOLAS GUNEA

### POXPOLO JOLASA

**ZER DA?:** Mahai jolas bat da logika matematikoa eta espaziala lantzeko balio duena. Bakarka edo taldeka jolasteko aukera ematen dituen mahai jolasa da. 8 urtetik aurrera gomendagarria, baina lehenago ere erabili dezakete eta hasierako forma imitatu.

**AZALPENA?:** Mahai jolas honek 24 poxpolo handi eta 30 erronkadun txartelak ditu. Erronkak ordenean daude errazetatik zailagora.

Egin behar dena erronkan jarritakoa da. Normalean irudi bat emango zaigu eta poxopolok horrela jarri beharko ditugu. Gero poxpolo batzuk mugituta beste forma bat lortu beharko dugu.



## EGUEN ZURIKO OILARRA



### OSAGAIK:

- Kartoi tutua
- Kartulina
- Artaziak
- Margoa
- Kola

### ZELAN EGIN BAT?:

Eguen zurian oilarra ateratzen da lurra esnatzeko. Guk oilar hau egingi dugu material berziklatuarekin.

1. Hartu komuneko paperaren tutua eta margotu nahi duzun koloretan.
2. Kartulinarekin gangarra egin eta itsatsu tutuaren goikaldean. Beste kartulina batean hegoak margotu eta itsatsi.
3. Bi begi jarri.
4. Paper bat tolestuz mokoia egin eta itsatsi.
4. Hankak "pipagarbitzailleekin" egin daitezke, modu horretan zutik jarri ahal izango da.
5. Dekoratzeko lumak jarri ahal zaizkio.



**KOKORIKO**  
HEZKUNTZA FAKTORIA

### Natura

Natuarekiko kontaktua galdu egin dute haurrek. Geroz eta banatuagoak gaude bizitza ematen digun naturatik. Gurea denarekiko, gure berezko esentziarekiko lotura eza geroz eta handiagoa da.


Herrietan ohikoa da berdegunerik gabeko hormigoizko plazetan jolastea, haurrentzako parkeak ere naturatik at eraikiak izaten dira. Hirigintza orokorrean, naturari bizkarra ematen egin izan da eta horrek ekarri du haurrek kontaktu hori ere galtzen joatea.

Gainera teknologia berrien sarrera, eta pantailena batez ere, ekarri izan du beste mundu birtual batzuetan barneratzea jolaserako diren tarteetan. Pantailen barrena bagaude, gure inguruak ez digu inporta eta mundu birtualean barneratu egiten gara. Jolasa ere geroz eta naturatik aldenduagoa da, dendan erositako jostailuak behar izaten dituzte haurrek ondo pasatzeko, ematen du geroz eta elektronikoagoak geroz eta hobeagoak.

Natura ornamentu bihurtzen ari da geroz eta gehiago, beldur puntu bat sortu arte. Naturan dena iruditzen zaigu arriskutsua, haurrak botatzean kolpatu daitezke, zuhaitz batera igotzean erori daitezke, makilekin jolastean zauritu daitezke, errekan jolastean busti daitezke... Eta bai naturan badaude arriskuak, haurra maila askoko garapenean laguntzen dituen arriskuak dira. Naturak ez du aspertzeko aukerarik eskaintzen.


Natura haurraren garapenean gure ezinbesteko aliatua da. Gune natural batera joaten garen bakoitzean ezberdin topatuko dugu, beti egongo da zerbait berria, gainera, bertan sortuko den jolasa ezinbestean sortzailea izango da, haurrek eraiki beharko dute jolasa, topatzen dituzten elementuekin. Haurrak hazteko eta garapenerako behar dituzten hainbat eta hainbat aspektu modu naturalean topatuko ditugu naturan.

Kontaktatu dezagun gehiago naturarekin, harreman horretatik jaioko baita, natuarekiko maitasuna eta errespetua. Gainera, kontaktu honetatik etorriko da haurra sano garatzea.



## ALdea dago!

Bi zamaltzain hauek ez dira berdin-berdinak. Aurki itzazu bien artean dauden aldeak. Bederatzi dira.



## Zati engainagarriak

Zortzi zatitxo hauetatik lau iruditik hartuta daude, eta beste laurak engainagarriak dira, hau da, antza baduten arren, ez dira guztiz berdinak. Bereiz itzazu.



## SOLUZIOAK



# Kontra

## Aiaraldetik mundura



### Aitor Arana Medina

JAIOTERRIA  
LAUDIO (1997)

BIZILEKUA  
BARTZELONA

BIDAIAREN XEDEA  
LANERA ETA BIZITZA ESPERIENZTIA BERRI BATEN BILA  
JOAN ZEN BARTZELONARA



### KATALUNIA



#### DESKRIBAPENA

Herrialde Katalanak, katalana mintzatzen den lurraldeari ematen zaion izena da, Iberiar Penintsularen ekialdean kokatzen dena. Katalunia edo Printzerria lurralde horretako iparraldeko herrialdea da, eta 2017an independentzia erreferenduma gauzatu zuen.

#### AZALERA

31.895 kilometro koadro.

#### BIZTANLEAK

8 milioi biztanle.

#### HIZKUNTZAK

Katalana, aranera eta gaztelania.

#### Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte  
Tirada: 10.000 ale.  
Maiztasuna: Hamabostekaria  
Lege gordailua: BI-1230-2013  
Posta elektronikoa:  
egunkaria@aiaraldea.eus  
agenda@aiaraldea.eus  
erredakzioa@aiaraldea.eus  
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus  
Tlfnoa: 688 62 53 94  
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio. Araba. 01400  
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00  
Web-gunea: www.aiaraldea.eus  
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

#### ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:

Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Iraia Pereiro, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzen Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde Alberto Gutierrez, Eunatze Ekhiñe

## “Bartzelona oso handia da, baina auzokideen arteko harremanak estuak”

### Zerk eraman zaitu Bartzelonara?

Betidanik gustoko izan dut Bartzelona. Hona bizitzera etorri baino lehen, bisita asko egingen nizkien hemen ditudan lagunei eta etxera bueltatzeko orduan beti sentitzen nuen hemen geratzeko nolabaiteko “beharra”.

Beraz, duela urtebete hona bizitzera etortzeko erabakia hartu nuen bizimodu aldaketa baten bila eta esperientzia berri eta anitzen bila, besteak beste.

### Nolakoa da zure egunerokotasuna?

Hasiera batean erabaki nuen niretzat denboralditxo bat hartzea. Hortaz, hasierako hilabeteetan aurrezki batzuekin hiria ondo ezagutzeko eta deskantsatzeko aprobetxatu nuen.

Baina hemen diruak esku arteetik oso azkar ihes egiten du, beraz, lana bilatzen hasi eta segituan hartu ninduten hemengo os-

pitale batean erizain bezala lan egiteko.

### Hiri handia da Bartzelona, alde handia dago Laudioko bizitzarekin konparatuta?

Laudion ohiko gauzak egingen nituen: lanera joan, lagunekin atera, gertuko mendietara joan... eta nire bizitzako puntu honetan rutina honetatik alde egin nahi nuen; esan dudana bezala, esperientzia berriak bizi, leku eta jende berria ezagutu... Bartzelona oso handia da baina aipagarria da auzoetan ekintza asko antolatzen direla eta auzokideen arteko harremanak asko sustatzen dira. Adibidez, orain calçot-en garaia dela, auzo guztiek calçotadaren bat antolatzen dute. Nire auzoan ere bi baratze daude, auzokideek kudeatuta.

### Bartzelona ezaguna da sorkuntza eta kultura espazio anitzengatik.

Askotariko espazioak daude eta, aipatu dudana bezala, lehenengo hilabeteetan hauek ezagutzeko aprobetxatu nuen, batez ere museoetara eta kontzertu-geletara joateko. Gainera, etengabe berriatzen ari den hiri bat da eta nahiz ta leku ezberdinak ezagutu, beti aurkituko duzu ezagutzen ez duzun espazioen bat. Hala ere, honek ere bere alde txarra dauka. Izan ere, askotan ez daukazu inprobisatzeko astirik, beti denborekin erosi behar dituzu sarrearak edo ilara luzeak itxaron behar dituzu.

### Katalana ikasten zabilta?

Bai, duela gutxi hasi nintzen hemengo hizkuntza eskola batean. Erraza iruditzen zait eta kalean asko entzuten da. Katalan askok esan didaten bezala, Euskal Herria eta Kataluniaren artean nolabaiteko anaitasun bat existitzen da. Horregatik gutako askok, nahiz eta lanerako edo egu-

nerokotasunerako behar ez izan, haien hizkuntza ikasteko borondatea erakusten dugu.

### Zeintzuk dira Euskal Herriaren eta Kataluniaren arteko desberdintasun nagusienak?

Eguraldia. Ez dakit aldaketa klimatikoa den ala beti hola den, baina hemen ez dut negua nabaritu. Nahiz eta hemengo eguraldia “hobea” den, hemen ez dago terrazetan egoteko hainbeste ohiturarik, eta hori batzuetan faltan botatzen dut. Pintxoak ere asko botatzen ditut faltan. Baita pintxopoteak ere, jakina. Erritmoa askoz azkarragoa da hemen baina ez dut uste Bartzelona izateagatik, baizik eta hiri handi bat delako. Hasieran pentsatzen nuen itogarria izan zitekeela, baina momentuz ondo moldatzen naiz. Jendea oso irekia da. Nabaritzen da etorkin asko daudela eta guztiok gaudela harremantzeko beharrekin.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

